

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA
EDUCACIÓN

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Graduado o Graduada en Maestro en Educación Infantil

Haur Hezkuntzako Irakasletzako Graduatua

Trabajo Fin de Grado

Gradu Bukaerako Lana

***Fingerprints proiektua: Entzumena eta
Hizkuntza alorreko prebentzioa
literaturaren bitartez lantzen***

Estudiante/Ikaslea: Ainara Echeverria Goñi

Tutor/Tutorea: Juan Jose Zubiri Lujambio

Departamento/Saila: Giza, Gizarte eta Hezkuntza zientziak

Campo/Arloa: Lengoaia eta Hizkuntzaren didaktika

Maiatza, 2023

AURKIBIDEA

LABURPENA	3
SARRERA	5
1. AGENDA 2030	6
2. LITERATURAREN TEORIA	8
2.1. Zer da literatura?	8
2.2. Ezaugarriak.	11
2.3. Literaturaren historia.	13
2.4. Literatur generoak eta motak.	14
2.4.1. Haur literatura	15
2.4.1.1 Zer da?	15
2.4.1.2. Balio eta erabilerak	15
2.5. Linguistika.	17
2.6. Ipuinak.	19
3. ENTZUMENA ETA HIZKUNTZAREN TEORIA.	21
3.1. Definizioa.	21
3.2. Adin tarteak	24
3.3. Lan egiteko modua / betebeharrak / lanaren nondik norakoa.	28
3.4. Entzumena eta Hizkuntzako esku-hartze motak.	29
3.5. Prebentzioa	33
3.5.1. Prebentzioaren garrantzia	33
3.5.2. Aurki ditzakegun arazoak	34
3.5.3. Alderdi psikologikoak	36
3.5.3.1. Burmuinaren zatiak eta bakoitzaren eginkizunak	36
3.5.3.2. Burmuinaren garapen orokorra	37
3.5.3.3. Burmuina eta lengoaia	39
3.5.3.4. Lengoaiaren garapena eskolan	41
4. LITERATURA ETA EH-REN ARTEKO UZTARKETA	44
4.1. Zergatik uztartu	44
4.2. Nola lagundu dezake literaturak Entzumena eta Hizkuntza (EH) arloaren prebentzioan	45

4.3. Nola uztartu: GBL-aren helburua	46
5. PRÁCTICUM	48
5.1. Ohiko liburuak: Nola dastatu ilargia?	48
5.2. Objektu fisikoak: Neoren amesgaiztoa (asmatutako ipuina).	51
5.3. Fingerprints.	53
6. EZTABAIDA	55
CONCLUSIONES	58
ERREFERENTZIAK	60
ERANSKINAK	69

LABURPENA

Entzumena eta Hizkuntzak hezkuntza mundura ekarri duen problematika planteatuz, Gradu Bukaerako Lan honetan, agertu berri den Entzumena eta Hizkuntza arloak barnebiltzen duen prebentzioaren inguruan arituko da, haren lanketa literaturaren bitartez eginez, zehazki ipuinen bitartez. Bi arlo hauen azterketak, haien uztarketa ekarriko du, honen justifikazioa egin eta hiru adibide praktikoren bitartez lanaren helburuari balioa ematen. Honela, proiektuaren helburua, Entzumena eta Hizkuntzaren parte den prebentzioa, ikasleekin ipuinen bitartez lantzea izango da. Uztarketak, *fingerprints* proiektuari emango dio hasiera, *practicum* ataleko hirugarren adibidea izango dena. Bertan, guraso nahiz irakasleentzat izango den plataforma bat sortu nahi da, beren ardatza Entzumena eta Hizkuntza ipuinekin lantzen duten materiala izanik. Hau guztia lortzeko, ipuin motz batzuk sortuko dira, euskarri klasikoaz gain bideo bat izango dutenak, ikasle bakoitzaren adinera egokituriko fonema eta gaitasunak landuz.

Gako hitzak: Entzumena eta Hizkuntza; Prebentzioa; Literatura; Ipuina; Fonema; Gaitasun.

RESUMEN

El tema central de este Trabajo de Fin de Grado será la recién incorporada rama educativa de Audición y Lenguaje. En concreto, trabajaremos sobre la base de la prevención en esta disciplina, combinándola con la literatura. El estudio de estas dos áreas derivará en su combinación, que será justificada y pondrá en valor el objetivo del trabajo mediante tres ejemplos prácticos. El objetivo del proyecto será trabajar la prevención con los alumnos mediante la literatura, en concreto, los cuentos. Esta combinación dará paso al proyecto *fingerprints*, el tercer ejemplo del apartado práctico. Con esto se pretende crear una plataforma para padres, madres y profesorado que almacene material práctico con el que trabajar la Audición y Lenguaje mediante cuentos. En consecuencia, se crearán cuentos cortos que serán plasmados tanto en formato clásico, como en videos. Este material estará adaptado a los fonemas y habilidades lingüísticas de la edad del alumno.

Palabras clave: Audición y Lenguaje; Prevención; Literatura; Cuento; Fonema; Habilidad.

ABSTRACT

Hearing and language is the newest branch that education has implemented. During this Final Degree Project, the main object of investigation will be the prevention field of Hearing and Language and how we can combine it with literature to enhance its evolution in children. The investigation of these two areas will lead into their combination, which will be justified and will hand value through three practical examples. This being said, the aim of this project will be performing prevention with kids through literature, specifically, short tales. This combination will conduct the so-called project *fingerprints*, the third example shown in the *practicum* section. *Fingerprints* is based on the creation of a platform for parents and teachers that will collect the material to perform prevention through short tales. Consequently, short tales will be created, captured in the classical way, but also with videos. The material will be adjusted to the phonemes and linguistic abilities of children, taking their age into account.

Keywords: Hearing and Language; Prevention; Literature; Tale; Phoneme; Ability.

SARRERA

En este Trabajo de Fin de Grado se presentará un proyecto con el cual trabajar la recién creada área educativa de Audición y Lenguaje, utilizando como base el recurso literario de los cuentos. Como se verá en las siguientes páginas, tras realizar una justificación teórica de la literatura y Audición y Lenguaje, se encontrará el *practicum*, que presentará tres ejemplos en los que se hilará la teoría anterior. Entre estos ejemplos se encontrará el proyecto *fingerprints* el cual, además de formar parte del título del TFG, también será el punto de combinación de la teoría, donde se creará una web sobre Audición y Lenguaje para padres, madres y profesorado. En la web se podrá encontrar información sobre Audición y Lenguaje y material con el que trabajarlo, teniendo como punto de partida los cuentos.

Para poder llevar la propuesta a cabo, será necesario hacer un análisis profundo y específico de la teoría, para poder buscar la conexión entre la literatura y el lenguaje y lograr que los resultados del proyecto sean mejores. En consecuencia, el TFG comenzará con una introducción a la teoría de la literatura, integrada por su definición, características, historia, géneros y lingüística, al final se concluirá con un breve fragmento sobre los cuentos, ya que son la base del proyecto. A continuación, se hablará de la teoría de Audición y Lenguaje, teniendo en cuenta su definición, franja de edad, formas de trabajar, intervención y prevención, pues, entre todos los tipos de intervención, el TFG se centrará en la prevención. En este punto también podremos encontrar información sobre los aspectos psicológicos. Tras ello, se tratará la combinación de las áreas de Audición y Lenguaje y literatura, dando comienzo al *practicum*. Al final, se plantearán los resultados y problemas que puede causar esta combinación, cerrando el TFG con la conclusión.

Siguiendo la dirección anteriormente expuesta, en este proyecto se analizarán las razones y materiales por los cuales se combinará la AL con la literatura, creando un material fácil de manipular tanto para padres y madres, como profesorado. Ese será el objetivo de este TFG, demostrar el valor de la combinación entre Audición y Lenguaje y literatura, dando ideas para su desarrollo mediante los ejemplos del *practicum*. Además, con la creación del proyecto *fingerprints*, se intentará responder al desconocimiento sobre Audición y Lenguaje, y crear material que lo combine con la literatura.

1. AGENDA 2030

La Agenda 2030 o ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible) es un plan de 193 Estados miembros de las Naciones Unidas que pretende trabajar en favor de las personas, el planeta y la prosperidad, ayudando con la paz universal y acceso a la justicia. Para ello, se plantean 17 objetivos con 169 metas. Todo esto queda redactado en el Real Decreto 452/2020, de 10 de marzo, por el que se desarrolla la estructura orgánica básica del Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030, y se modifica el Real Decreto 139/2020, de 28 de enero, por el que se establece la estructura orgánica básica de los departamentos ministeriales, se fijan las funciones de la Secretaría de Estado para la Agenda 2030. (Ministerio de derechos sociales, *Gobierno de España*, 2023).

Colaborando con los 17 objetivos propuestos, este proyecto pretende adoptar tres de ellos, los cuales serán justificados en las siguientes líneas. Así, los objetivos de salud y bienestar; educación de calidad; y reducción de las desigualdades, serán parte de este proyecto, dando apoyo a la nueva Agenda 2030.

Dicho esto, y creando un puente entre los objetivos y el Trabajo de Fin de Grado, dado al carácter educativo del mismo, se buscará mejorar la educación, tratando de lograr la calidad educativa y otorgando a los alumnos una posible mejora de materiales. Este trabajo tiene entre sus objetivos mejorar la audición y lenguaje del alumnado mediante materiales innovadores basados en la literatura. Mejorar la educación siempre será uno de los objetivos, brindado con la mejor calidad educativa del alumnado.

Por otro lado, ligado al anterior objetivo podemos encontrar el de salud y bienestar. La búsqueda de la calidad educativa está estrechamente unida a la salud y bienestar del alumnado, puesto que una buena educación es esencial en esta área. Sin esta el alumno o la alumna será capaz de lograr un completo bienestar, ya que la educación es la base del conocimiento. Además, la estimulación de la audición y el lenguaje ayudaría a la salud del individuo, trabajando esas dos áreas y evitando posibles complicaciones de futuro, además de detectar dificultades auditivas o de lenguaje con precocidad, de manera que podrían ser tratadas antes y los resultados serían mejores. Todo esto ayudaría tanto en la salud del niño o niña, como en su bienestar, dándole una mejor calidad de futuro.

Por último, la escuela tiene como objetivo reducir las desigualdades. La red educativa pública del estado español es lo suficientemente amplia como para que una

mejora de esta impacte positivamente en la reducción de desigualdades. El objetivo y los materiales creados en este TFG podrían ayudar a ello, pues no todas las familias pueden permitirse un logopeda o tiene el tiempo suficiente para invertir con sus hijos e hijas. Con esta propuesta, el material y la información estarían en manos de todo aquel que lo necesitara y un buen proyecto de Audición y Lenguaje podría ser llevado a cabo en las aulas, pues, con la demanda educativa y la cantidad de trabajo, hay veces en las que el profesorado no llega a abarcar todo lo que desearía y, con este proyecto, el material y las pautas ya estarían creadas, lo único que deberían hacer es ponerlas en práctica en las aulas. De esta manera, todo el alumnado tendría las necesidades de Audición y Lenguaje cubiertas, reduciendo las desigualdades.

Con todo, me gustaría añadir una última idea. El desarrollo de este proyecto en las aulas también permitiría crear conciencia y trabajar todos los objetivos planteados en la Agenda 2030 en el aula, pues la literatura y las historias son una herramienta fantástica para lograr la atención de los alumnos y alumnas, haciéndoles partícipes de esta ideas y creando una consciencia que, a futuro, podría tener un gran impacto en la sociedad.

2. LITERATURAREN TEORIA

2.1. Zer da literatura?

Literatura, munduan aurkitzen ditugun definitzeko kontzeptu zail horietako bat izateaz gain, haren inguruan ikerketa txiki bat eginez gero, hitz polisemiko bat dela ikusiko dugu. Polisemia, linguistikan erabiltzen den kontzeptu bat da, hitz batek erranahi bat baino gehiago dituela adierazteko. Ezaugarri hau duten ehundaka hitzen artean, literatura hauetako bat da eta, euskaraz haren polisemia horren garbia ez bada ere, bertze hizkuntza batzuetan (gaztelania adierazgarriena izanik) haren erranahi eta erabilerak ugaritu egiten dira. Honez gain, literatura nahiko hitz abstraktua dela erran dezakegu, hurrengo lerroetan ikusiko den bezala, historian zehar eman zaizkion erranahi eta definizioak ugariak izan baitira eta kultura batetik bertzerara aldatzeaz gain, pertsona bakoitzak ere haren inguruko kontzeptu ezberdin bat izan ahal baitu.

Edozein hitzen erranahia jakiteko egiten dugun lehen gauza, hiztegi ofizialetara jotzea da, bertan baitaude hitz guztien definizio ofizialak, hau da, hizkuntza bakoitzeko instituzio linguistikoak biltzen dituen definizioak. Honela, Euskaltzaindian (2023) begiratzu gero, literaturaren inguruko bi definizio ematen dizkigu, bere polisemiari keinua eginez.

1 iz. Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea; era horretako idazlanen multzoa edo multzo jakin bat. Zinema eta literatura. Idatzirik dagoen guztia da literatura. Irakurlearen atseginerako egiten den literatura ederrean. XIX. mendeko frantziar literatura. Latinezko literatura. Munduko literatura. Euskal literaturaren historia. Ahozko literatura. Literaturari buruzko literatura. Literaturako eskuliburuak.

2 (Hitz elkarketan, lehen osagai gisa). *Literatura motak. Literatura-obrak. Literatura-euskara. Literatura prosa. Literatura euskalkiak. Literatura loraldia. Literatura-aldizkarietan. Literatura tradizioa. Literatura-kritikaren oinarriak.*

(Euskaltzaindia, 2023)

Euskaltzaindiaren definizioari bakarrik begiratzen badiogu, literatura “arte” bezala ulertzen ditugun idazlan guztiak biltzen dituen kontzeptua dela uler dezakegu. Definizio honekin ados egon ahal bagara ere, arte hitzaren erabilerak arazo bat sortzen digu, honen erranahia arras abstraktoa izateaz gain, subjektiboa baita. Kontzeptu subjektiboen arazoa,

persona bakoitzak honen inguruko ideia edo sentimendu ezberdinak izan ditzakeela da, pertsona guztien iritziak elkartzen dituen definizio baten sorrera ezinezkoa izanik.

Honela, bertze hizkuntzetako definizioak begiratzen baditugu, hurrenez-hurren, hau da gaztelaniaz eta ingelesez aurki dezakeguna.

1. f. Arte de la expresión verbal.
2. f. Conjunto de las producciones literarias de una nación, de una época o de un género. *La literatura griega. La literatura del siglo XVI.*
3. f. Conjunto de las obras que versan sobre una determinada materia. *Literatura médica, jurídica.*
4. f. Conjunto de conocimientos sobre literatura. *Sabe mucha literatura.*
5. f. Tratado en que se exponen conocimientos sobre literatura.
6. f. coloq. palabrería.
7. f. *Mús.* Conjunto de obras musicales escritas para un determinado instrumento o grupo instrumental. *Literatura pianística.*
8. f. desus. Teoría de las composiciones literarias.

(RAE, 2023)

1. (noun). Pieces of writing that are valued as works of art, especially novels, plays and poems (in contrast to technical books and newspapers, magazines, etc.)
 - *English/American/French literature*
 - *children's literature*
 - *great works of literature*
 - *For most people, the desire to study literature begins with a love of reading.*
2. (noun). Pieces of writing or printed information on a particular subject
 - *sales literature*
 - *literature on something a review of the scientific literature on the topic*

- *I've read all the available literature on keeping rabbits.*
- *literature about something I picked up some literature about pensions.*
- *Chapter 1 reviews the literature and discusses the main types of sources available.*

(*Oxford dictionary, 2023*)

Lehenengoa, gaztelania hizkuntzako *Real Academia Española*-k literaturaren inguruan egiten duen definizioa da. Bertan, hitz honen polisemia argia izateaz gain, Euskaltzaindiak erraten duen moduan, literatura arte gisa etiketatzen dute, hitzezko hizkuntzaren bitartez sortzen dena (hitzezko hizkuntzak bai ahozko, bai idatzizko lanak barnebiltzen ditu). Bigarrena, ingelesa hizkuntzeko *Oxford* instituzioak ematen duen definizioa da; hizkuntza honetan ez dago Euskaltzaindia edo RAE-k betetzen duten eginkizuna aurrera eramaten duen erakunderik, hala ere, Oxford da lan hau beregain hartu duen instituzioa. Honela, haien erranetan, literatura, artelan balioa duten idatzizko piezak dira, gehienbat nobelak, poemak eta antzerki obrak; liburu teknikoak, aldizkariak, egunkariak... hartatik at geratuz; honez gain, gai baten inguruan idatziriko informazio bezala ere definitzen dute.

Beraz, hiru hizkuntzek argi dute literatura arte bat dela, honek sortzen duen eta arestian aipatu den arazoari uko egin eta literatura kontsideratzen diren lanak pertsona bakoitzaren iritziaren menpe utziz. Hala ere, euskara eta gaztelaniazko definizioek literatura idatzizkoa izateaz gain, ahozkoa ere dela onartzen dute, ingelesaren kontra joanez, honek idatzizkoa bakarrik dela baitio. Aldi berean, ingelesak idazlan mota guztien artean literatura kontsidera daitezkeenak zehazten ditu, bertze bi hizkuntzetan egiten ez dena.

Definizio guztiei begiratuz, argi geratzen da, hizkuntza bakoitzak literatura definitzeko parametro batzuk hartzen dituela kontuan, guztiek arte kontsideratzen badute ere. Hala ere, historian zehar eta hizkuntza bakoitzaren barruan definizio hauek eboluzio baten menpe egon dira, haren inguruko teoria anitz egon baitira noraezean, literaturaren benetako erranahia bilatu nahian. Honela, Terry Eagleton-en (1983, 11-28 or.) lanari begiratuz gero, borts teoria nagusi aurki ditzakegu, literatura ikuskatu eta ulertzeko egon daitezkeen ikuspuntu ezberdinak laburbiltzen dizkigunak.

1. Literatura erreala ez den zerbait idaztean datza.

2. Formalisten teoria: Literatura hitzaren erabilera estetikoa da, hau da, idazteko moduak bihurtzen du idazlan bat literatura. Idazteko modu hau bat eta bakarra da, ez da aldakorra.
3. Ez dauka berehalako amaiera praktikorik, haren egoerak izaera orokorra dauka.
4. Literaturaren esentzia ez da existitzen, bakoitza modu batean erlazionatzen da idatzitakoarekin.
5. Literatura idazteko modu arras preziatua da, baina ez da egonkorra, historiako momentu bakoitzean ezberdina izango da.

Eagleton-ek egindako ikerketari esker, literaturaren definizioa aldakorra eta anitza dela ikus dezakegu, honen inguruko ikuspuntuak agerian utziz. Erranahi bakoitzak bere aldeko argudioak baditu ere, haien kontra dauden argudioak ere aurki ditzakegu, bortz teoriak ezeztatuz. Izan ere, literaturaren erranahia eta hura kontsideratzen dena oso subjektiboa da, bakoitzak bere modura uler dezakeelako. Honen ondorioz, orain arte ikusiriko definizio guztiak deusezta ditzakegu, beti ere guk literatura ulertzeko dugun modua kontuan izanik. (Eagleton, 1983, 7. or.)

Literaturaren erranahi anitzen inguruko aurkezpena egin ostean eta Gradu Bukaerako Lan honen behar eta eginkizunari begira, literatura *idatzizko, ahozko nahiz irudikatutako istorio edo informazioa biltzen dituen lanak* direla errango dugu, beti ere *haren alderdi artistikoa* kontuan izanik, sormena baita literatura definitzen duen ezaugarrietako bat, hizkuntza bateko hitzen konbinaketa arte gisa kontsideratu ahal baitugu, margotzea bezala, estetikoa, artiskoa eta zaila baita, informazio xumea idazten ari bagara ere edertasun eta ordena bat bilatzen baitu beti.

2.2. Ezaugarriak.

Aurreko atalean aipaturiko guztia kontuan hartuz, literaturak ezaugarri jakin batzuk ditu, haren definizioaren arabera aldatuz joan ahal direnak. Edonola ere, orokorrean, zenbait ezaugarri betetzen ditu, guztiontzat berdinak direnak eta literaturaren definizio bat sortzen laguntzeaz gain, haren inguruko iritzi bat sortzen laguntzen digutenak. Hiztegi-tako definizioak anitzetan ez dira nahiko kontzeptu oso baten inguruko deskripzioa egiteko eta beharrezkoak izaten dira haren ezaugarriak jakitea, honek lagunduko baitugu lan bat literatura den edo ez erabakitzen. Honela, arestian errandakoa kontuan izateaz gain, hurrengo lerroetan literaturaren bertze hainbat ezaugarri (Significados, 2019) buruz ere solastatuko da.

Alde batetik, “literatura hitzezko edo idatzizko hizkuntza erabiliz sortzen ditugun lanak dira; errealak izateak ez du inporta, ezta bere formatuak ere, bai ahoz, bai idatziz aurki dezakegu literatura, hitzen konbinazio ezberdinen bitartez istorioak kontatzen dizkiguna” (Significados, 2019). Pertsonok aspaldidanik egiten dugu haren erabilera, lehenengo literatur lana *Gilgamesh-en Poemak* izanik, k.a. 2000. urtekoa.

Bestalde, eta orain arte ikusiriko definizio guztiek dioten bezala, literaturaren ezaugarri nagusienetako bat espresio artistiko modu bat izatea da. Izan ere, hizkuntzaren erabilera estetikoa egiten da gauzak espresatzeko, horregarik, kontatu nahi dena modu ordenatuan eta ahalik eta politenean irudikatzen da. Errimak, poesiak edota nobelak ere, arte forma bat dira, gure emozio edo ideak adierazteko erabiltzen dugun baliabidea; margolari batek koadro batean tristura espresatu dezakeen moduan, idazle batek hitzen bitartez tristura hori bizi araziko digu. Euskaltzaindiak arte¹ definitzen duen moduan, argi dago literatura honen barruan sartzen dela, espresio artistikoaren ezaugarria bere baitan eramanez.

Irakurketaren plazerra, imaginazioaren ernatzea eta bertze lekuetara eramatea da literaturak egin nahi duena; hau da, hitzaren erabilera estetiko eta poetikoaren bidez, leku jakin batera eraman nahi gaitu, emozio eta sentsazio ezberdinak sortu eta pertsonaia edo gertaera batzuk aurkeztu. Honela, estetika eta poetikaren erabilera literaturaren ezaugarri bihurtzen dira eta, hori dela eta, figura literario eta erretoriko anitz aurki ditzakegu literatur lanetan.

Gainera, autore bakoitzaren sormen eta orijinaltasunetik sortzen dira obra hauek, beren esperientzian oinarriturik egon daitezkeenak, anitzetan fikziozkoak badira ere, erralitateko zenbait elementu gehitu ditzakete. Aldi berean, idatzitako hau hiru generotan banaturik egon daiteke: lirika, narratiba edo dramatika. Lirika, sentimendu eta emozioak adierazten dituzten lanez osaturik dago (poesia); narratiba, prosaz idatziriko obrek osatzen dute (ipua, nobela eta nobela motza); eta, dramatika, antzezlanetan erabiltzen den literatura mota da (antzerkiak).

Azkenik, literatura korranteetan banatzen dela erran beharra dago, obrak dituen ezaugarriak ikertuz bereizten direnak; ezaugarri hauek estiloa, kritika, gaia edota aldi historikoak osatzen dituzte. Hau guztia aztertzeaz arduratzen den disziplina literaturaren teoria da.

¹ Arte (Euskaltzaindia, 2023). iz. Gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea, musikan, literaturan, arkitekturan, arte plastikoetan eta kidekoetan gauzatzen dena.

2.3. Literaturaren historia.

Literaturaren inguruan hitz egin nahi badugu, haren historiari begirada bat ematea ezinbertzekoa da, errazagoa izango baita haren eboluzioa ikusi eta ulertzea. Lerro gutxi batzuetan ehundaka urte dituen historia bat laburbiltzea nahiko lan zaila da, beraz, literaturaren historiari (Significados, 2019) hurbilketa xume bat egingo zaio. Honetarako, aldi eta mugimendu garrantzitsuenak izango dira kontuan.

- a. *Antzinako literatura*: Kultura orientaletan izan zuen hasiera, kontserbatzen den lanik zaharrena “Gilgamesh-en Poemak” izanik, k.a. 2000. urtekoa. Honez gain, garai hartatik lortu ditugun liburuen artean, “Las Vedas” Indiar testuak (k.a. 1500-500); Antzinako Egiptoko “Libro de los muertos” liburu funerarioa (k.a. XIII) eta Biblia (k.a. 900-100) ditugu. Denboraldi honetan Alejandriako liburutegiaren erreketak gertatu zela kontuan izan beharra dugu, idatzi anitz galdu baitziren.
- b. *Literatura klasikoa*: Greko eta latinez idatziriko obrak (k.a. X - k.o. V). Obra hauek kultura okzidentalean izugarritzko eragina izan zuten, mitologia grekoko sinesmenak orduan ezarri baizituzten. Bertsoan idatziak izan ohi dira, adib: La Odisea (Homero, k.a. VIII), Edipo Rey (Sofocles, k.a. 429).
- c. *Erdi Aroko literatura*: Erromatar Inperioko erorketa eta Amerikaren aurkikuntza bitarte (476-1492). Denboraldi honetan gaztelaniazko lehen obrak agertu ziren, eliza literatura eta jakintzaren jabe zelarik; modu honetan, literatura oso erlijioso bihurtu zen. Herriaren obrak (*Cantares de gesta*) eta idatzizko literatura aurki ditzakegu, adib: El cantar del Mio Cid (s.a., 1200), El libro del buen amor (Arcipreste de Hita, 1330).
- d. *Literatura errenazentsita*: Errealitatea irudikatu eta idealizatzen zuten; gainera, natura perfektzioa eta orekaren sinbolo zen (XV - XVI bitarte). Inprentaren agerpena dela eta liburuak erreproduzitzea errazagoa bihurtu zen, adib: La Divina Comedia (Dante Alighieri, 1472), La Celestina (Fernando de Rojas, 1499).
- e. *Literatura barrokoa*: Hizkuntza kultu eta erudituen erabilera nabaria, figura literarioen gehiegizko erabilerarekin (XVI - XVII). Mugimendu inpultsiboa, agitazio sozialez betea eta zenbait konfliktorengandik markatua, iluntasun eta ziurgabetasunera bueltatuz, adib: El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha (Cervantes, 1605), Hamlet (Shakespeare, 1603).
- f. *Ilustrazioko literatura*: Izaera didaktikoa, filoso eta pentsalari anitzen obrekin. “Argien mendea” gisa ezagutzen dugun garaian (XVIII), adib: El discurso del método (Descartes, 1637), Cándido (Voltaire, 1759).
- g. *Erromantizismoko literatura*: Ni-aren nagusitasuna, pesimismoz beterik, (XVIII.mendearen bukaeran). Maltzur eta itsusiarekiko edertadunarenganako joera,

aurreko joerenganako errebeldia gisa. Adib: Cuentos de terror (Edgar Allan Poe, 1845), Frankenstein (Mary Shelly, 1818).

- h. *Gaur egungo literatura*: Frantziako iraultzaren ondoren, Errelismoa, Modernismoa eta Abangoardiaren erabilerarekin. Etengabeko berrikuntza aldaketa sozial, politiko eta kulturalengatik. Errealitatearen isladarekiko joera, adib: Oliver Twist (Dickens, 1838), Ana Karenina (León Tolstói, 1877).

Honela, mende guztietan zehar, literaturak ikaragarrizko eboluzioa izan du haren gaiak eta idazteko forma aldatuz. Aldi berean, haren alderdi eta ezaugarri nagusiak sortuz joan dira, gaur egun ezagutzen dugun formatuetara iritsi arte. Hurrengo ataletan, literaturak bizitako guztiari esker, gaur egun ezagutzen dugun literaturaren teoriaren esparruan, haren genero eta motez arituko gara.

2.4. Literatur generoak eta motak.

Literaturaren teoriaren hezurdurari begiratuz gero, hainbat genero eta motetan banatzen dela ikusiko dugu. Proiektu hau aurrera eramateko, haietako batzuetan bakarrik zentratuko gara, baina, honi buruz solastatu aurretik, guztiak aztertuko ditugu, gainera bederen, literatura hobeki ulertzeko ahaleginetan.

Alde batetik, hiru generotan (Significados, 2019) banatzen da literatura, aurretik jadanik aipatu dugun moduan:

- Lirikoa: Bertsoan idatziriko lanak (himnoak, odak, poesia...).
- Narratiba edo epika: Prosa edo bertso luzetan idatziriko obrak (ipuina, nobela...).
- Dramatika: Antzezlanetan erabiltzen den literatura mota (antzerkia, tragedia, komedia...).

Bertzalde, literatura motak (Significados, 2019) aurki ditzakegu, funtzioa, gaia eta sakoneraren arabera sailkatzen direnak. Honela, edozein literatura mota batekoa izateaz gain, genero batekoa ere izango da:

- Fikziozko literatura: Gertakizun eta pertsonaia erreal edo fikziozkoen nahasketa.
- Fantasiako literatura: Sormen anitzeko kontakizunak, errealak ez diren gertakizun edo pertsoniaz osaturikoak.
- Ez-fikziozko literatura: Historia errealak (biografiak).

- Haur literatura: Haurrentzako idatziriko liburuak. Irudien erabilera handia egiten da, hizkuntza erraz eta deskripzio sinpleekin.

Gratu Bukaerako Lan honen beharren arabera, haur literatura izango da erabiliko den literatur mota, proiektua Haur Hezkuntzako ikasleei zuzenduta baitago. Generoak begiratu gero, garrantzitsuenak narratiba eta lirika izango dira, adin hauetako haurrekin dramatika lantzea posible bada ere, haren lanketa anitz zailtzen da. Hala ere, ipuin bat kontatzeko momentuan hura antzeztea ezinbertzekoa da eta ikasleek arras ongi pasatzen dute mota honetako obrak erreal bihurtzen direnean. Beraz, haur literaturaren inguruko jakintzak ezinbertzekoak izango dira, haren baitan lan egingo baitugu.

2.4.1. Haur literatura

2.4.1.1 Zer da?

Haur literaturaren kontzeptua arras eztabaidatua izan da autore anitzen artean. Zenbaitetik horrelakorik esistitzen ez dela diote, bertze batzuek aldiz, defendatu eta definizio bat ematen saiatzen dira. Edonola ere, literaturaren kontzeptuarekin gertatzen den bezala, oso zaila da definizio bat ematea, literatura hitzak berak zailtasunak sortzen baititu.

Argi dago, haur literatura, haurrentzat sorturiko literatura dela. Arestian ikusi bezala (*literatura genero eta motak* atalean), haur literatura genero literario bezala etiketa daiteke, haurrentzat zehazki sorturiko obrek osatzen baitute. Obra hauek artistikoak edo pedagogikoak izan daitezke, baita biak ere. Oro har, haur literaturaren definizioa literaturaren definizioaren menpe egongo da; hori dela eta, literaturaren inguruko kontzeptuaren arabera, haur literatura gauza bat edo bertze dela adieraziko da. Hala ere, haur literatura, haurrentzat idatziriko literaturak osatzen duela erratea egokia dela pentsa daiteke, hori baita *haur* hitzak erran nahi duena.

Honela, haur literaturak hainbat ezaugarri ditu (Haurliteraturablog, 2016), haurrentzat idatzia egotetik urrunago joanez:

- Irudiz beterik daude.
- Letra larriz idatzita egon ohi dira.
- Testu motzak eta hizkuntza nahiko sinplea da.
- Liburuen luzera motza izan ohi da.

2.4.1.2. Balio eta erabilerak

Haur literaturaren funtzioez solastatzen dugunean, funtzio hitzak haur literaturak haurrengan izan dezakeen garrantzi edo balioaz ari garela erran nahi du, zertarako erabl dezakegun eta nola izan daitekeen baliagarria haientzat; literaturaren erabilera Haur Hezkuntzan. Alor honetan, Teresa Colomer daukagu aditu garrantzitsuenetakoa, hark izendatu baitzituen haur literaturaren funtzioak. Teresa Colomerrek GRETEL ikerketa taldea sortu zuen, haur, gazte eta ohiko literaturak hezkuntzarekin daukan lotura aztertzen duena; beraz, haur literaturan aditua dela argi geratzen da, honen funtzioen inguruan egindako lana oso garrantzitsua baita.

Hori dela eta, proiektu hau aurrera eramateko, eta haur literaturaren funtzioak aipatzeko, ezinbertzekoa da bere lanari erreparatu eta funtzio hauek kontuan hartzea. Hala ere, hauek aipatu baino lehen, literaturak orokorrean dituen funtzioez solastatzea gustatuko litzaidake.

Literaturak, orokorrean, bortz funtzio izan ditu. Lan bakoitzak hauetako bat edo gehiago bildu ditzake, beti ere autoreak harekin lortu nahi duena kontuan izan behar bada ere. Edonola ere, irakurleak ere funtzio berezi bat eman ahal dio irakurtzen duenari; batzuetan, autoreak duen ideiarekin bat egingo du, bertzeetan ez. Honela, hauek dira bortz funtzioak (Significados, 2019):

- *Adierazkortasun funtzioa*: Sentimenduak eta emozioak adierazten direnean.
- *Funtzio estetikoa*: Hizkuntzaren erabilera estetikoa daukaten obrak, honen bidez edertasuna bilatzen dutenak.
- *Funtzio ludikoa*: Denbora pasatzeko edo “jolasteko” erabiltzen den literatura.
- *Funtzio didaktikoa*: Entretenitzeaz gain, irakasten duen literatura.
- *Funtzio kritikoa*: Pentsamendu bat adierazi edo kontestu sozial bat denuntziatzen denean.

Colomerrek (2005), aldiz, bertze funtzio batzuk esleitzen zaizkio haur literaturari, huetako batzuk barnebiltzen badituzte ere, bertze alderdi batzuei garrantzia ematen diotenak. Orotara hiru dira:

- Haurra *imaginario kolektibo*-ra hurbiltzea: *Imaginario kolektibo* (Barambio, 2018) deritzo gizarte batean dauden mito, sinbolo, tradizio, sinesmen... multzoari. Gizartearen burmuin gisa irudikatzen da anitzetan, gizarte horrek elkarbanatzen dituen ideiak baitira, moduren batean gizarte hori sortzen edo ezaugarritzen dutenak. Hala nola, Euskal Herrian Olentzeroren irudiari egin ahal dio erreferentzia, bertako guztiok ezagutzen baitugu, baita “ospatu” ere.
- Narratiba, poetika eta dramatikara hurbilpena egitea (edo kulturaren parte diren literatur eredueta): Honen bitartez haurraren heziketa literarioa bultzatzen da, literatur hauetara hurbilpena eginez.
- Sozializazio kulturala: Honen bitartez, haurrak bere ingurua eta mundua hobeto ulertzen du, arazoetara hurbildu edota egoera bakoitzaren aurrean jokatzeko modu egokia aurkitzen laguntzen baitio. Hau da, mundura hurbiltzen zaie; honetarako, hau erakutsi, eta bertan dagoena eta gertatzen dena irudikatzearen dira.

Gratu Bukaerako Lan honetan, Entzumena eta Hizkuntzaren alorra *sozializazio kulturalaren* kontzeptuarekin oso loturik dago. Izan ere, funtzio honetan literaturaren bitartez haurra mundura hurbildu nahi da, bere parte egin. Lengoia sozializazioaren parte izateaz gain, gure kulturaren iturria ere da, bere osagaietako bat baita. Hori dela eta, bien lotura oso estua dela erran daiteke, eta EH funtzio honen barruan sar daitekeela, literaturaren funtzioetako bat EH lantzea bihurtuko lukeena. Literaturaren *sozializazio kulturalaren* funtzio honek ikaslea bere kulturara hurbilduko luke eta lengoia kulturaren zati dela jakinda, EHren lanketa sustatuko luke.

2.5. Linguistika.

Linguistika “hizkuntzaren jatorria, eboluzioa eta estruktura aztertzen duen disziplina zientifikoa da, hizkuntza arautzen duten legeak edo honen funtzionamendua bilatzen duena” (Instituto de investigaciones Lingüísticas, UDC). Azken finean, hizkuntza ikertu egiten du, haren barrualdearen inspektzioa eginez, hau da, ez du idatzirikoa edo estetika begiratzen, hitz bakoitzaren eginkizuna baizik, baita hizkuntza osatzen duten elementuak ere.

Bere azterlana, giza hizkuntzaren oinarriko estrukturetan zehazten da, bertze hizkuntza familiatan hauek dituzten aldaeretan ere bai, hau da, moduren batean, hizkuntza familiak identifikatu eta sailkatzen ditu, hizkuntza bakoitzari bere txokoa emanaz. Horretaz guztiaz gain, hizkuntza naturalen bitartez ulertu eta komunikatzea posible egiten duten

baldintzak ere identifikatzen ditu. Hizkuntza naturala (Gomez, 2021), pertsonok bertzeekin interaktuatzeko erabiltzen dugun komunikazio mota da, idatzia, ahozkoa edo ez berbala izan daitekeena.

Beraz, linguistika disziplina anitz ikertzen dituen zientzia bat dela erran dezakegu, beti ere hizkuntzaren esparruan egonik, hori baita bere ikergunea. Honek arazo bat sortzen du bere baitan, hizkuntzaren azterketa zaila eta abstraktua baita, batetik bertzera aldaketa handiak daudelako. Hori dela eta, hizkuntzaren azterketa on bat egiteko asmoarekin, linguistikaren barruan hainbat sail ezberdin aurki ditzakegu, banaka ikertuz gero, hizkuntza osoaren azterketa zehatz bat lortuko da. Sail hauetako bakoitzak hizkuntzak sortzen duen arazo bat aztertzen du. Honela, hauek dira aurki ditzakegun ikerketa atalak eta bakoitzak ikertzen duen arazoa. (Instituto de investigaciones Lingüísticas, UDC)

1. Soziolinguistika: Pertsona bakoitzak bertzeekin interaktuatzeko erabiltzen duen modua (ez da gauza bera zure nagusiarekin edo zure lagunekin hitz egitea).
2. Psikolinguistika: Gizakiek hizkuntzaren lorpena, produkzioa eta hizkuntza asimilaziorako dituzten prozesu kognitibo eta psikologikoen ikerketa.
3. Neurolinguistika: Psikolinguistikarekin bat, burmuinak hizkuntzaren lorpenean, produkzioan eta asimilazioan egiten duen lana ikertzen du.
4. Dialektologia: Hizkuntza batetik datozen dialektoak ikertzen ditu.
5. Geografia linguistikoa: Munduko hizkuntza/dialektoen inguruko mapak eta atlasak egiten ditu.
6. Antropologia linguistikoa: Hizkuntza aniztasuna aztertzen du.

Aldi berean, linguistikak, hizkuntza bera ikertu du, hau da, hizkuntzaren egitura ikertzen du. Hizkuntzaren oinarriko unitateak zeinuak dira eta, linguistikak, haien multzokatzeengandik sortzen diren mailak aztertzen ditu (Fernandez, 1986, 20 or.). Aurki ditzakegun mailak hurrengoak dira (Fernandez, 1986, 30-31 or.).

1. Fonologia eta fonetika: Zeinuen soinuaz arduratzen dira.
2. Semantika: Zeinuen erranahiaz arduratzen da. Semantika lexikoa (hitzen erranahia) eta semantika gramatikoa (estrukturen konbinazioaren erranahia) aurki ditzakegu maila honetan.

3. Gramatika: Zeinuz arduratzen da, indibidualki edo kolektiboki. Honela, bere baitan, zeinu sinpleak aztertzen dituen morfologia da (hitzaren azterketa) eta zeinu konplexuak aztertzen dituen sintaxia (esaldiaren azterketa).

Honez gain, pragmatikak ere garrantzia hartuko du. Izan ere, Bloom eta Lahey-ren hitzetan (1978; Jiménezek 2010en aipatua), lengoia, forma (fonologia, morfologia, sintaxia), edukia (semantika) eta erabileraren (pragmatika) arteko elkarrekintzarengatik sortzen da, pragmatika linguistikaren azterlan bihurtuko lukeena. Pragmatika, linguistikaren zati garrantzitsua dela erran daiteke, “Komunikazioaren egoera eta erabiltzaileak lengoia-rekin daukaten erlazioa” aztertzen baitu (Oxford Languages), lengoia-re erabilera egokia egiteko beharrezkoa den alderdia.

Beraz, Entzumena eta Hizkuntzaren alorrean, hiru maila hauek osatzen dituzten *fonologia*, *fonetika*, *semantika*, *morfologia* eta *sintaxia* oso garrantzitsuak izango dira, ikasleek garatu behar dituzten eta haiekin landu behar diren arloak baitira. Baita *pragmatika* ere, egoera eta pertsonen arabera lengoia modu jakin batean erabiltzen ikasi behar dutelako.

2.6. Ipuinak.

Literatur mota guztiak kontuan izanik, Gradu Bukaerako Lan hau aurrera eramateko, narratiba generoaren barruan aurkitzen diren ipuinak aukeratuko dira, haur literaturaren barruan garrantzi handia daukan alorra. Monfort eta Juarezek (1993, 192, 193 or.) aipatzen duten moduan, ipuinek hainbat ezaugarri dituzte, haurrentzat lagungarriak direnak. Hurrengo lerroetan, beren lana kontuan izanik, hauen inguruan solastatuko da.

Ipuina, Euskaltzaindiaren (2023) arabera, “Irudimenak sorturiko alegiazko kontakizuna, jostatzeko helburua duena” da, beti ere, “egiazkoa ez den esan” bezala ere deskriba daitekeena. Ipuinak edozein adineko pertsonari zuzenduak egon daitezke, istorio sinpleak ez ezik, oso garatuak eta korapilatsuak ere izan baitaitezke. Haur literaturaren munduan, ipuinak garrantzi handiko kontakizunak dira, haurrentzako dibertigarriak direnak. Hala ere, ipuinek ikasteko ere balio dute, eguneroko arazoak islatu ditzaketelako, haurrei mundura hurbilduz; hitz gutxitan, sozializatzeko balio dute, baita gure inguruko kultura azaldu eta haurrak bertan murgiltzeko ere.

Aldi berean, ipuinei esker hizkuntzarenganako hurbilpen bat egiten da, literatura eta Entzumena eta Hizkuntza lotzeko berariazkoa den arrazoa. Honela, haurrek hiztegi aberats

bat lor dezakete, baita zuzena den lengoaiaren input-a lortu ere. Gainera, kultuagoa den hizkuntza batekin aurkitzen dira, bertze era batean lortuko ez luketena.

Ipuinek haurra fantasia eta sormeneko mundu batean murgiltzen dute, beren burmuin eta sormenaren garapenarentzat ezinbertzekoak izango direnak. Modu honetan, istorioak asmatu eta errealitateaz haratago joan daitezkeela ikusiko dute, beren barne mundua aberastuz.

Bertzalde, memoria estimulatzeko ere erabil daitezke ipuinak (Monfort eta Juarez, 1993, 192-193 or.), baita ikasleen parte-hartzea handitzeko ere. Baliabide honi ematen diogun erabileraren arabera, haurrentzat arras onuragarria izango da, alderdi hauek landuko baititugu. Memoria Haur Hezkuntzan landu beharreko gai garrantzitsua da eta ipuinek errepikapenerako ematen diguten aukerarekin, eta galdera egokien bitartez, hau lortuko dugu, haurren dibertsio eta atenzioa galdu gabe. Parte-hartzearekin gauza bera gertatzen da. Behin ipuina bukatuta edo hura kontatu bitartean, parte-hartzea susta daiteke, haur isilenen ahotsak entzunez.

Ezaugarri hauei esker, ipuinak Entzumena eta Hizkuntza lantzeko baliabide apropos bihurtzen dira, bereziki eraldatzeko eta maila bakoitzari moldatzeko daukaten erraztasunari esker. Haur guztiek maite dituzte ipuinak eta beren atenzioa lortzeko era hoberenetakoa da. Lan hau aurrera eramateko intentzioarekin, ipuinak kontatzeko modu ezberdinak aurkeztuko dira *practicum* atalean, hauen malgutasuna erakutsi eta ipuinak bizira ekartzeko ohiko moduez bertze, kontakizun dinamiko eta desberdinak sortzeko moduen adibideak jarritz, ipuinak kontatu egiten baitira, ez irakurri.

Ipuinak kontatzeko modu ezberdin hauen artean aurki ditzakegunak, ohiko irakurketa, ipuin kontalarien kontaketa modua, objektu fisikoen bitartekoa, puzzle formatuko ipuinak, txontxongiloen bidezko ipuina, euskarririk gabeko ipuinak eta bertze hainbat aurki ditzakegu (Aprendiendo con Montessori, 2017). Gradu Bukaerako Lan honetan, zehazki, hiru erabiliko dira: ipuinak kontatzeko ohiko modua (liburua euskarri eta Haur Hezkuntzan ipuinak kontatzeko argibideak kontuan izanik), objektu fisikoen bitartez kontaturiko ipuinak eta *fingerprints*, bideo nahiz ipuinak kontatzeko ohiko modua erabiliko duen formatua, GBL honen amaierako produktua izango dena.

3. ENTZUMENA ETA HIZKUNTZAREN TEORIA.

3.1. Definizioa.

Entzumena eta Hizkuntzaren definizio bat emateko, bi hitz hauek banandurik begiratu behar ditugu, bakoitzaren azterketa bat eginez, biak batera aipatzen baditugu ere, bakoitzak bere erranahia daukalako.

Alde batetik, entzumena, Euskaltzaindiaren (2023) hitzetan, “gorputzaren zentzumena, belarrian datzana eta hotsak eta soinuak sumarazten dituen” da. Hau da, belarriaren bitartez lortzen dugun informazioa barnebiltzen duen zentzumenaren izena. Gure gorputzak borts zentzumen nagusi bereizten ditu: ikusmena, usaimena, dastamena, ukimena eta entzumena, horietako azkena izango da gure aztergaia. Honen bitartez, soinuek ematen diguten informazioa biltzen dugu eta hizkuntza bereganatzeko erabiltzen dugun zentzumen nagusia da.

Bertze aldetik, hizkuntza edo lengoia “naturalki ikasten den funtzioa eta trebetasuna da, gizartearekin elkarrekintzan eta, gehienbat, haur-heldu komunikazioaren bitartez garatzen dena” (Monfort, 1992, oposineten aipatu zen moduan, 2016). Honez gain, pentsamenduak eta ideiak komunikatzeko tresna ere bada, gure egunerokoan erabiltzen duguna; hitzekoa ez ezik, idatzizkoa edo keinu bidezkoa ere izan daiteke, bertzeak bertze.

Bi kontzeptu hauen arteko harremana batak bertzearengan daukan menpekotasunean oinarritzen da, entzumen gabe oso zaila baita lengoia ikastea, baina, lengoairik gabe, entzumenaren bitartez lortzen dugun informazioa ulertu eta sailkatzea ia ezinezkoa baita. Izan ere, lengoiak entzumen bidezko informazioa dekodetzen duen momentu berean, gure lengoia garatzeko estimuluak bereganatzen ari gara.

Beraz, biak oso garrantzitsuak dira gure garapen intergrala aurrera eramateko, bertzeekin komunikatzeko ditugun herramienta nagusiak baitira. Komunikazioa hizkuntza elkartruke bezala ulertzen badugu, alderdi hauek gabe ezingo ginateke bertzeekin harremandu, ezta sozializatu ere. Sozializazioa guztiok egiten dugun prozesua da, non gizartearen parte bihurtzen garen, gure inguruko hizkuntza, kultura, ideiak... ikasi eta harremanak sortzen ditugun. Prozesu hau gertatzen ez denean pertsonak izugarriko galerak erakusten ditu burmuinean eta garapenean, baita hizkuntzan ere; hizkuntzaren bitartez sozializatzen baikara, baina sozializatorik gabe ezin baidugu hizkuntza ikasi.

Entzumena eta Hizkuntzarekin gertatzen den bezala, sozializazioak eta hizkuntzak ere bata bertzeareganako beharra daukate.

Entzumena eta hizkuntzaren alderdiak garatzen ez direnean edo beharrezko estimulazioa lortzen ez dutenean, gure garapen kognitiboa, afektiboa eta erlazonala atzeratu egiten dira. (Ferrer, 2014) Hizkuntzak, bertze hainbat funtzio edo trebetasunek bezala, aldi kritiko bat dauka; hortik aitzin, ezinezkoa da hizkuntza bat garatzea, oinarritzko gauza batzuk ikastea posible bada ere. Honela, burmuinak bizitzako lehenengo urteetan daukan plastizitateaz baliatzen ez bagara, gero eta zailagoa izango da pertsona batek hizkuntza bat garatzea, entzumen arazorik ez badu ere. Honen euskarri gisa, haur basatiak izenekoen historiak ditugu, hala nola, Aveirongoko Victorrena. Victor, ehiztari batzuek basoan aurkitu zuten haurra izan zen, hamaika urte inguru zituena. Hizkuntza eta sozializazio gabeko haurra zen, berehala bi trebetasun hauek ikasteko prozesuarekin hasi zena. Bere “irakaslea” Jean M. Itard izan zen eta lortu zituen emaitzak nahiko onak izan baziren ere, ez zen inoiz bi trebetasun hauek garatzeko gai izan zen (Ferrer, 2014). Victor bezala, hizkuntza gabeko bertze hainbat haur aurki ditzakegu historian zehar, haietako ospetsuena Hellen Keller izanik, itsu eta gor jaiotako pertsona. Hellen-en kasuan, bere gurasoek hezi zuten baina bi zentzumen hauek ez zituenez, haur “basati” bat bihurtu zen. Azkenean, Anne Sullivan-en laguntzarekin, hizkuntza bat lortu zuen haurrak, keinuetan oinarritzen zena, bere bizitzan zehar garapen argiak lortuz (Ferrer, 2014).

Lengoairik gabeko haur hauek irakatsi diguten moduan, trebetasun hau gabe, bertzeekin harremantzeko dugun modua oihuetan, agresibitatean eta inpultsibitatean oinarritzen da, gure emozio eta sentimenduak ez ulertzeaz gain, gure ideiak eraiki eta ordenatzea ere ezinezkoa bihurtzen da. Gaur egungo mendebaldeko gizarteetan honelako kasuak ematen ez badira ere, entzumena eta hizkuntzaren garrantzi eta beharra azpimarratzeko balio digute, haiek gabe gizarteratzea ezinezkoa dela ulertzen baitugu. Egia da, entzumenik ez dagoenean hizkuntzak ikasteko bertze modu batzuk daudela, haien artean ezagunena keinu hizkuntza; baina, hizkuntzarik gabe bizitzeak sortuko lukeen gizartea bertze mota batekoa izango litzake, izen, kontzeptu eta gramatika gabea.

Honela, mendebaldeko gizarteetan entzumena eta hizkuntza lantzeko dauden profesionalei logopedak deritze, entzumen, fonazio eta hizkuntza transtornoen prebentzio, ebaluazio eta errehabilitazio egiten duten profesionalak dira, beren disziplinarenak diren teknika terapeutikoak erabiliz (LOPS 44/2023 legea, azaroaren 21ekoa). Hala ere, hezkuntzaren alorrari begira, Entzumen eta Hizkuntzako profesionalak aurkitzen ditugu, azken urteetan eskoletara erantsi den figura. Azken hauen lana prebentzioan oinarritzen da

(CREENA, 2021), ikasleek izan ditzaketen arazoak detektatu eta honi aurre egiteko plan bat sortuz, baita haiekin beharrezkoak diren alderdiak landuz. Hala ere, bi lanbide hauen artean nahasketa anitz egon ohi dira, pertsona anitzek lan bera egiten dutela pentsatzen baitute. Edonola ere, profesional hauen artean borts ezberdintasun nagusi aurki ditzakegu (Avanzo, 2019):

1. taula.

Logopeda eta EH profesionale arteko ezberdintasunak

<i>LOGOPEDA ETA EH PROFESIONALEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK</i>	
Logopeda	Entzumena eta Hizkuntza
Osasun profesionala	Hezkuntza profesionala
Hainbat lekutan egiten du lan, ez hezkuntza alorrean bakarrik. Gainera, adin guztietako pertsonekin egiten du lan	Eskoletan lan egiten du, 3-8 urte bitarteko ikasleekin
Trastorno guztiekin lan egiten du	Ikaskuntza oztopatzen duten hizkuntz alterazioak lantzen ditu
Ahots, hizkuntza, entzumen, komunikazio eta irensketa arazoaren prebentzioa, detekzioa, ebaluazioa, diagnostikoa eta tratamendua egiten ditu	Ebaluazioan, prebentzioan, detekzioan eta diagnostikokoan lagundu eta parte-hartzen du
Interbentzio eta tratamendu klinikoa	Hezkuntza laguntza eta interbentzioa

Oharra: Avanzo (2019) webgunetik ateratako ezberdintasunak. Logopeda eta EH-ko profesionalen lanak konparatzen dituena.

Honela, Entzumena eta Hizkuntzako profesional baten inguruko definizioa egin nahi badugu, prebentzioan oinarritzen den eta hezkuntza oztopatzen duten hizkuntz alterazioak detektatzen dituen pertsona da, hezkuntza alorrean, 3-8 urte bitarteko ikasleekin lan egiten duena; beren funtzio nagusia ebaluazio, prebentzioa, detekzio eta diagnostikokoan lagundu eta parte hartzea da.

Entzumena eta hizkuntza, pertsonon garapen integrala sustatzeko euskarriak dira, haiek gabe komunikatzea ezinezkoa baita. Mendebaldeko gizarteetan pertsona guztiok biak garatzen baditugu ere, batzuetan zailtasun edo trastorno batzuk agertzen dira haien baitan,

bizitzako lehen urteetan detektatzea oso garrantzitsua dena. Honetarako, Entzumena eta Hizkuntzako profesionalaren figura erantsi da gure eskoletan, hezkuntza alorrean dauden zailtasunak detektatu eta hauei aurre egiten lagunduko diguna. Hurrengo puntuetan, profesional hauei buruz arituko gara, Gradu Bukaerako Lan honetan profesional hauek literaturaren bitartez prebentzioa lantzeko duten modua, garrantzia eta aukera aztertuko baitira.

3.2. Adin tartea


Arestian aipatu bezala, Entzumena eta Hizkuntzako profesionalak hezkuntza alorrean egiten du lan 3-8 urte bitarteko hurrekin, hau da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan. Adin tarte honetan prebentzioa da lantzen dena, zenbait hurrekin saio individualizatuak egiten badira ere. Beranduago azalduko den moduan, Entzumena eta Hizkuntzan hiru laguntza mota bereizten dira: unibertsala, gehigarria eta intentsiboa. (Monzón, 2022)

Lehenengoa, ikasle guztiei bideraturik dago eta bertan oinarritzen da lana. Hala ere, behar bereziak dituzten ikasleekin ere egiten da lan Entzumena eta Hizkuntzan, (laguntza gehigarria edo intentsiboa) hainbat transtorno edo zailtasun barnebiltzen dituztenak. Kasu honetan, ikasleek daukaten adina zortzi urte baino gehiagokoa izan daiteke, hizkuntzarekin lagundu eta hau zehazki lantzeko beharra baitute.

EH lantzen diren lengoaiaren alor guztietatik, adinaren arabera beren garrantzia aldatu egingo da, burmuinaren eta hizkuntzaren garapen prozesuaren arabera batzuk garrantzitsuagoak izango baitira. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan zazpi alderdi nagusi daude: *Soziokulturalak, linguistikoak, estrategikoak, pragmatikoak, hizkuntza komunikaziorako trebetasuna, pertsonalak eta bertze batzuk.*

2. taula.

EH-n landu beharreko alderdi nagusiak



Oharra: Taula hau osatzeko Ballesteros (2020) ikerketa erabili da.

Alderdi hauen guztien garrantzia azpimarragarria bada ere, GBL honetan dimentsio linguistikoa eta elementu pragmatikoak izango dira kontuan, horiek baitira prebentzioaren bitartez lantzen direnak. Hauen bidez, hurrengo eskema osatu da, adin bakoitzean haurrek landu behar dituzten alderdiak islatzen dituena eta prebentzioaren alorrean maila bakoitzean landu beharrekoa adierazten diguna. Taula hau osatzeko *oharrak* atalean aipaturiko ikerketak erabili dira.

3. taula.

Adin bakoitzaren arabera ikasleekin EH-n landu beharreko gaitasunak.

<p>HH 1</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Entzumen memoria ● Entzumen diskriminazioa ● Kontzientzia lexikoa. ● Kontzientzia pragmatikoa.
	<ul style="list-style-type: none"> ● Entzumen memoria

<p>HH 2</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Entzumen diskriminazioa ● Kontzientzia silabikoa. ● Kontzientzia lexikoa. ● Kontzientzia pragmatikoa.
<p>HH 3</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Entzumen memoria ● Entzumen diskriminazioa ● Kontzientzia silabikoa ● Kontzientzia fonemikoa ● Kontzientzia morfosintaktikoa. ● Kontzientzia lexikoa. ● Kontzientzia pragmatikoa. ● Diskurtso narratiboa. ● Kontzientzia semantikoa. ● Printzipio alfabetikoa, dimentsio ortoeplikoa.
<p>LH1 eta LH2 mailetan guztiak barneratu eta landu beharko lirateke eta dimentsio ortografikoarekin hasi.</p>	

Oharra: Taula honen sorkuntzarako Ballesteros (2020), Gutierrez eta Díez (2018), Martínez (2018), Pertegal (s.f.), Cervera (2004), Rodríguez (2017) eta Acuña eta Sentis (2004) lanak erabili dira.

Aurreko taulaz gain, adin bakoitzean landu beharreko fonemak jakitea ere oso garrantzitsua da, prebentzioan hauen lanketa emango baita eta fonetika-fonologia alorraren oinarria baitira.

4. taula.

Adinaren arabera lortu beharreko fonemak

JABEKUNTZA ADINA	FONEMAK, TALDE KONTSONANTIKOAK ETA DIPTONGOAK
3 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Sudurkariak (m, n, ñ) • Herskariak (p, t, k, b) • Frikariak (j, x) • Urkariak (l) • Diptongoak (ie, ue)
4 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Soinudun herskariak (d, g) • Frikariak (f) • Afrikatua tj (ch) • Diptongo beheranzkoak (ei, au) • Talde kontsonantikoak: kontsonantea + r (tr, kr) <p>→ Sinplikazio prozesuak onartzen dira: asimilazioak, ordezkapenak eta egitura silabikoen murrizketa.</p>
5 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Dardarkaria (r) • Frikaria (s) • Talde kontsonantikoak: kontsonantea + l (pl, kl, bl)
6 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Frikaria (z) • Urkaria λ (ll)
7 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Dardarkariak (r, rr)

Oharra: Taula honetan Laura Bosh (2003) ikerkuntzan oinarritua izan da, Susanibar, Huamani eta Dioses (2013) ikusitakoa.

Hauek lortzen ez badira, hizkuntzaren alorrean zerbait gertatzen denaren adierazle bezala uler dezakegu, ikasle bakoitzaren egoera pertsonala alde guztietatik begiratzea ezinbertzekoa bada ere, batzuetan fonema bat ez ahoskatzeak bertze erranahi bat izan ahal baitu, adibidez: haizearen kontrola egokia ez izatea. Taula hau betetzen ez badute, larritzeko

arrazoia izan ditzakegu, baina azterketa egoki eta oso bat egitea beharrezkoa izango da erabaki bat hartu baino lehen.

Hau jakinik, fonemen garapenak zortzi urteetan jadanik osaturik egon beharko luke eta hizkuntzaren alderdi guztiak ere garaturik egon beharko lukete. Hori dela eta, Entzumen eta Hizkuntzako profesionalak zortzi urte bitarteko ikasleekin egiten du lan, adin horretan hizkuntzak garaturik egon beharko lukeelako eta alor honetako zailtasunak bertze mota batekoak izan beharko luketelako. Bere lan esparruak barnebiltzen duen garapena edo azterketa eremua zortzi urteetatik gora garaturik egon beharko luke, beraz EH-ren esku-hartzeak bertan bukatzen du; hala ere, esku-hartze individualizatua behar duten ikasleekin lan egiten jarraitzen du Lehen Hezkuntzako zikloa bukatu arte; honen adibide Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoa (HNE) daukaten ikasleak izan daitezke, gehienbat detekzioa berandu egiten bada, hizkuntza lantzeko daukaten beharra ikaragarrikoa baita.

3.3. Lan egiteko modua / betebeharrak / lanaren nondik norakoa.

Entzumena eta Hizkuntzako profesionala, normalean, Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ikasi duen pertsona da, alderdi honetan espezializatu dena. Arestian aurreratu bezala, logopedaren figurarekin nahasketa anitz egon ohi dira, duela gutxi sorturiko espezialista baita, azken urteetan ia eskola guztietan aurki dezakeguna, Espainiar estatuaren kasuan gutxienez.

Pertsona honen betebeharrak nagusia ikaskuntza oztopatu dezaketen nahasketen inguruko prebentzioa da (CREENA, 2021), hau da, hizkuntzaren arloan ikasleek izan ditzaketen arazoei aurre hatzea. Hori guztia tutorearekin koordinazioan eramaten da aurrera. Honez gain, alterazio hauen ebaluazioan, prebentzioan, detekzioan eta diagnostikoan lagundu eta parte-har dezake, ikasleekin lanketa individualizatuak eginez. Azkenean, hizkuntzaren alderdi guztietan parte-hartzen du, horien ebaluazio eta garapena ahalik eta hoberena izan dadin, etorkizuneko oztopoei aurre egin edo zailtasun hauek detektatu eta lantzeko asmoarekin.

Profesional honek bere gela propioa izan ohi du eskolan, baina, ondorengo puntuan ikusiko dugun moduan, ikasle bakoitzarekin bere lana aurrera eramateko modu ezberdinak egongo dira. Izan ere, bakoitzaren beharren arabera, talde osoarekin, talde txikitik edo bakarka lan egingo du, ikaslearen gela barruan edo kanpoan. Bere betebeharren artean, gela hornitzea egongo litzateke, ikasleak etortzen direnean haien oztopoak lantzeko balioko

diona, baita bertze motako materialak sortzea ere, hizkuntzaren alderdi guztiak lantzeko (fonetika, fonologia, morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika).

Nafarroan, Entzumena eta Hizkuntzako profesionalaren lana erregulatzen duen instituzioa CREENA da. Bertatik bere lanaren betebeharren berri ematen diote, eskola guztietan gauza bera egin dezaten. Beren webgunean azaltzen den dokumentuaren arabera, Entzumena eta Hizkuntzako espezialistak hurrengo funtzio hauek bete behar ditu (CREENA, 2021):

- Entzumena eta Hizkuntzarekin zerikusia duten programen garapenean parte-hartu. Ikastetxearen proiektuan komunikazio handigarria, zeinu hizkuntza eta Komunikazio Sistema Piktografikoaren inguruko neurriak txertatzea, ikastetxeko ikasleen artean hizkuntza gaitasuna hobetzeko asmoarekin.
- Ikastetxeko tutoreekin koordinazioan aritu, ikasleen ohiko gelan eta egunerokoan Entzumena eta Hizkuntzaren garapenean lagundu ahal dieten neurriak hartzeko, zailtasunak dituzten ikasleek egunerokoan jarraipen bat izan dezaten.
- Hezkuntza Behar Bereziak daukaten ikasleen programaziora, EH-ko programaketa moldatu.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin koordinazioa egin ikasleen zailtasunen prebentzioa egiteko, baita ahozko eta idatzizko hizkuntzaren estimulazioa egiteko ere.
- Hizkuntzaren eboluzioaren balorazioa eta jarraipena egin.
- Irakasleekin kolaboratu ikasleen gaitasun linguistikoa hobetzeko estrategiak eta orientazioak eman.
- Familiekin koordinatu, beren seme-alaben lengoia eta komunikazioaren hobekuntzan parte-har dezaten.
- Kurtsuan zehar egingo duten planaren sintesia gehitu Aniztasunaren Atentzioaren inguruko Planean, baita esku-hartuko duten ikasleen informe indibidualak, programazioa, garapena eta eboluzioa.

3.4. Entzumena eta Hizkuntzako esku-hartze motak.

Entzumena eta Hizkuntzako irakaslearen papera ikasleek arlo hauetan dituzten zailtasunak antzeman eta erantzun egoki bat prestatu eta ematea dela erran dezakegu, bertzenolako funtzioak betetzen badituzte ere. Lan hau, balio eta funtzioa ezberdinak dituzten hiru mailatan ezberdindu dezakegu. Hori dela eta hiru esku-hartze edo laguntza mota daudela erraten dugu: *unibertsala, gehigarria eta intentsiboa* (Monzón, 2022). Bertze

Fingerprints proiektua: Entzumena eta Hizkuntza alorreko prebentzioa literaturaren bitartez lantzen

izen batzuekin aurki ditzakegu zenbait testutan, baina, normalean, hauek dira ematen zaizkien izenak.

Bakoitzaren inguruan hitz egiten hasi aurretik, piramide bezala irudikatzen direla erran beharra da. Oinarrian *laguntza unibertsala* aurkituko genuke, pertsona guztiei bideraturik baitago eta arlo honen sostengua baita. Bigarren mailan *laguntza gehigarriak* egongo lirateke, pertsona espezifikoko batzuei zuzenduta baitago, baina ez dago ebaluazio psikopedagogikoen beharrik. Piramidearen puntan *laguntza intentsiboak* aurkitzen ditugu, ikasle gutxi batzuek osatzen dute zati hau, izan ere, ebaluazio psikopedagogiko bat egin beharra zaie maila honetan txertatu aurretik, esku-hartzea askoz ere intentsoagoa baita.

1. irudia. EH-ko laguntzen piramidea.



(Monzón Gonzalez, J. UPNA-NUP)

A. *Laguntza unibertsalak* (Monzón, 2022)

Laguntza unibertsalek prebentzioa dute euste-puntu bezala eta Entzumena eta Hizkuntzako espezialistaren lanaren oinarri dira. Maila honen esku-hartzea ikasle guztiei bideraturik dago, hiru eta zortzi urte bitarte.

Honen barruan lan egiteko modu eta betebeharrak ezberdinak aurki ditzakegu. Hasteko, ikasleek dituzten zailtasunak detektatzea da bere helburu nagusietako bat. Honetarako, tutore bakoitzak dituen eskaerak entzun eta gelara sartu ahal dira, haur guztien behaketa bat egiteko edo guztiekin batera zenbait ariketa lantzeko. Jarduera hauen bitartez, zailtasunak

dituzten ikasleak aurki ditzakete edo, beren adinaren arabera izan beharko luketen gaitasunak kontuan harturik, gelako hizkuntza mailaren azterketa bat egin. Honen ondoren, irakaslearekin hitz egin eta ikasleei probak pasa ahal zaizkie, beren gaitasunen gaineko susmoak badaude.

Bertzalde, prebentzioaren zati handi bat koordinazioa da, bai irakasle, bai familiarekin. Ikasle talde batean hizkuntza maila egokia bada ere, alderdi hau lantzea beti onuragarria da, beraz, tutore bakoitzak daukan Entzumena eta Hizkuntzako prebentzio ordu hau koordinazio bihurtzen da. Bertan, tutoreak espezialistari bere gelan ikusten dituen beharrez hitz egiten dio eta honek hauei aurre egiteko jarduerak edo proposamenak ematen dizkio, baita informazioa bilatu edota materiala sortu ere. Irakaslearekin koordinazioan, aholkulari lana egiten du espezialistak.

B. Laguntza gehigarriak (Monzón, 2022)

Laguntza gehigarriak arrisku-faktoreak dituzten hurrei zuzenduta daude, hau da, hizkuntzaren eremuan zailtasunak dituzten ikasleak dira, laguntza sendoago bat behar dutenak zailtasun hauei aurre egin eta bere adinak eskatzen duen gaitasunetara ailegatzeko.

Laguntza hau bi modutan eraman daiteke aurrera: talde txikitan edo indibidualizaturik. Taldeka egiterakoan ikasle bat baino gehiago hartzen dira eta haiekin hainbat jarduera burutu. Kasu honetan, ikasle bakarra izan daiteke laguntza hau behar duena, baina bere lagun presentziak onura egin ahal dio (aukeratzen diren taldekideak bertze ikaslearen mailatik hurbil egon ohi dira, laguntzaren beharrik ez badute ere); beste batzuetan, ikasle guztiek behar izaten dute laguntza eta guztiekin batera lan egiten da, jarduera ezberdinen bitartez behar guztiak betez. Indibidualizatuki egiten bada, zailtasunak dituen ikaslearekin bakarrik egiten da lan.

Maila honetako laguntza gela barruan edo kanpoan egin daiteke. Gela barruan bada, ikaslearekin lan egiteko txoko bat zehaztu daiteke tutorearekin, gainontzekoek bertze jarduera batzuk egiten dituzten bitartean. Gelatik kanpo, Entzumena eta Hizkuntzako irakaslearen gelan egin ohi dira jarduerak, zenbaitetan hutsik dauden bertze gela batzuk erabiltzen badira ere.

Laguntza hau malgutasun, prebentzio eta aldi-baterako intentzioarekin egiten da, ikasleek garapen egokia izateko oztopo horiek landu eta ezabatzeko asmoa baitago. Arrisku

taldeen barruan egon daitezkeen ikasleak bi multzotan bana ditzakegu: hautapen helburua eta adierazitako helburua. (Monzón, 2022)

- *Hautapen helburuko multzoa*: Arrisku egoeran egon daitezkeen talde baten parte dira, hala nola, imigranteak. Talde honetako partaideei ez zaie ebaluaketa psikopedagogikorik egiten.
 -
- *Adierazitako helburuko multzoa*: Adinaren arabera gaitasunak lortu ez dituzten ikasleak dira, ebaluaketa psikopedagogikoa izan dezaketenak. Hala ere, ez zaie beti ebaluaketa psikopedagogikorik egiten, ez baita maila honetako ezaugarri bat; hura gabe maila honetan lan egin dezakegu.

Laguntza gehigarriak jasotzen dituzten ikasle batzuek *curriculum egokitzapena* izan dezakete eta honen arabera egiten du lan espezialistak, haurrak lortu beharko dituen helburuak bere gelakideenen ezberdinak izango baitira.

C. *Laguntza intentsiboak* (Monzón, 2022)

Laguntza hauek NEAN-NEE daukaten hurrei zuzenduta dago, hau da, Hezkuntza Laguntza Behar Espezifikoak dituzten ikasleendako. Honen atzean beti ebaluazio psikopedagogiko bat dago, laguntza hau lortzeko eskakizunetako bat baita. Beraz, prozesu honen eskaerarekin hasi baino lehen ebaluazio psikopedagogiko bat pasa beharra zaio haurrari, maila honetan kokatzeko beharra daukala baieztatu eta hezkuntza departamentutik harentzat bakarrik izango diren orduak emateko; hau da, astean ordu kopuru bat ematen zaio ikasleari, momentu horietan Entzumena eta Hizkuntzako irakaslearekin bakarrik lan egiteko, hizkuntzan dituen oztopoek lanketa oso espezifikoak behar baitute.

Bertzalde, kontuan izan beharra dugu laguntza hauek oso espezifikoak direla eta ikasle bakoitzaren beharretara sortzen direla, erantzuna egokitu eta erregularri eginez. *Laguntza gehigarrietan* ez bezala, ez daukate inolako denbora mugarik eta hauek guztiz kentzea ez da ohikoa izaten. Behar handiko ikasleak izan ohi direnez, helburu ezberdinak zehazten zaizkie (*curriculum egokitzapena* izan ohi dute), hala ere, garrantzitsuena, ohiko gelako jardueretan ahalik eta parte-hartze gehien bermatzea da.

Maila honetan familiekin, logopedarekin, pedagogia terapeutikoko profesionalarekin (horrelakorik badauka), tutorearekin eta, kasuaren arabera, eskolaz kanpoko profesionalarekin

koordinatzea arras garrantzitsua izango da, bere beharrak bertze arlo batzuetara ere ailegatzen baitira normalean.

3.5.Prebentzioa

3.5.1. Prebentzioaren garrantzia

Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak eman ditzakeen laguntza guztien artetik, prebentzioa lehenengo mailako laguntza unibertsalen artean kokatzen da. Aurreko puntuan aipatu bezala, prebentzioaren helburua ikasleek Entzumena eta Hizkuntza alorrean dituzten zailtasunak antzeman eta hauei aurre egiteko irakaslearekin batera koordinazioan lan egitea da, baita beharrezko jarduerak eta materiala lortu eta sortzea ere.

Honengatik, prebentzioa laguntza motarik garrantzitsuena dela erran dezakegu, ikasleria guztiari zuzenduta baitago, hiru-zortzi urte bitarte. Honela, eskolaren hizkuntza maila hauteman dezakegu, lengoia zailtasun larrienak bilatu eta hauei aurre egiteko plan bat sortu. Prebentzioaren barruan, koordinazioa, alderdirik garrantzitsu eta esanguratsuena da, modu honetan hizkuntza zailtasunei aurre egitea errazagoa baita. Izan ere, tutore bakoitzari astero Entzumena eta Hizkuntzako ordu bat eskaintzen zaio. Denbora kopuru hau ez da nahikoa izaten, egun bakar batean hizkuntza lantzeak ez baitu beharrezko estimulazioa sortzen. Koordinazioaren bitartez, lanketa hau egunerokotasunaren parte bihurtzen da eta emaitzak askoz ere hobekiak dira, prebentzioaren arrakasta azpimarratuko duena.

Honela, prebentzioa aurrera eramateko modu anitz daude: bakarka, talde txikian, talde handian... ikasle eta gela bakoitzarentzat egokiena dena adosten da tutorearekin eta horren arabera egiten da lan. Prebentziorik gabe askoz ere zailagoa da hizkuntzan egon daitezkeen zailtasunak detektatzea eta tutoreek beren kabuz egin beharko lukete hizkuntza estimulazioaren lan guztia. Entzumena eta Hizkuntzako profesionalak bide honetan orientatu egiten die, egunerokotasunean prebentzioa beren gelan landu dezaten. Honetarako, gelan jarduera berezi batzuk jartzen dira martxan edo errutinetan txertatzen dira.

Prebentzioaren garrantzia bere lan eremuan eta zailtasunen detekzio goiztiarrean oinarritzen da. Modu honetan, ikasle guztiekin lantzen da hizkuntza, ez behar handia dutenekin bakarrik. Hizkuntzaren alderdi guztiei eskaintzen zaie garrantzia eta tutoreei egokia den orientazioa ematen zaie. Etorkizuneko zailtasunei aurreratzea da prebentzioaren lana; ongi eginez gero ikasleen hizkuntzaren garapena egonkorragoa eta sendoagoa izango da, zailtasun larrienak ekidinez.

Hau guztia erranik, prebentzioaren garrantzi eta beharra argi geratzen da. Hori dela eta, Gradu Bukaerako Lan hau aurrera eramateko laguntza unibertsalen eremuan eginen da lan, prebentzioaren atalean arreta jarritz. Entzumen eta Hizkuntzako irakaslearen lana honetan oinarritzen da eta lehen errekurso bezala erabili ohi da. Prebentzioa espezialista honek daukan baliabiderik garrantzitsuena dela erran dezakegu, honen bitartez ikasleen hizkuntza zailtasunak aurkitu eta oztopo horiek gainditzen hasteko erreminta baita.

3.5.2. Aurki ditzakegun arazoak

Gauza guztiek bezala, prebentzioak bere alde onak eta txarrak ditu, bere erabileraren bidean ere hainbat arazo aurki ditzakegulako. Arazo hauei aurrea hatzea oso garrantzitsua da, haien aurrean jokatzeko edo kontra egiteko errekurso eta erremintak sor baititzakegu, egoera horretara iritsi aurretik. Hori dela eta, prebentzioa egiten hasi aurretik, egin behar dugunaren aurrean aurki ditzakegun arazoak zerrendatu eta bakoitzarentzako irtenbide bat lortzea beharrezkoa da. Ondorengo koadro honetan, haietako hainbat zerrendatuko ditugu, *practicum* atala egitean kontuan izango direnak. Koadro hau Nafarroako Unibertsitate Publikoko *Haur Hezkuntzako gradu* egindako hirugarren praktikaldian bizitako esperientzia oinarri izanik osatu da.

5. taula.

Tutorearekin koordinazioa aurki daitezkeen arazoak

<i>ARAZOA</i>	<i>IRTENBIDEA</i>
Koordinazioa gelan egiten den heinean, ikasleek tutorearen atenzioa eskatzea.	Tutoreak hurrei momentu bat behar duela adierazi eta ulertaraztea edo, kasuaren arabera, tutoreari hurrekin laguntzea (gatazkak badaude...). Bertze momentu bat aurkitu edo email bidez egitea posible izango litzateke
Tutorearen pertzepzioa ezberdina izatea.	Bere ikuspuntua ulertu eta hortik lanean abiatzea, espezialistak ideiak ongi adieraziz eta beharrezko frogak eskainiz.
Espezialistaren osasun egoera, emozionala edo pertsonala.	Bere burua kontrolatzen jakitea, eguneko lana erregulatuz edo bere behar gutxiago daukaten jarduerak eginez.

Tutorearen prestutasuna.	Tutoreari lanaren garrantziaz eta kolaborazioaz jakinaraztea.
--------------------------	---

6. taula.

Ikasleekin jarduerak egiterakoan aurki daitezkeen arazoak

<i>ARAZOA</i>	<i>IRTENBIDEA</i>
Ikasleak jarduerarekiko duen prestutasuna.	Bere interesekoak diren jarduerak eskaini eta bertzeekin trukatzuz joatea. Denbora emateak ere lagun dezake.
Ikaslearen egoera emozionala	Beharrezkoa izan daiteke alderdi hau lantzea, bere hizkuntzaren egoerari ez baitio mesederik egingo gaizki egoteak. Bere beharrak ulertu eta bertze ariketa mota bat egin edo lagunen bat taldera gehitzea.
Ikaslearen jarrera	Bere atentzioa bereganatzen saiatzea, jarduera eta interbentzio mota ezberdinak erabiliz.
Jarduera egokia ez izatea	Maila igo edo kendu ahal zaizkion jarduerak prestatzea, beren ahalmenetara erregulatuz.
Espezialistaren osasun egoera, emozionala edo pertsonala	Irakasleak bere burua kontrolatzen jakitea, eguneko lana erregulatuz edo bere behar gutxiago daukaten jarduerak eginez.
Bai ikaslearen, bai irakaslearen ahots tonalitatea	Irakasleak bere ahots tonalitatea kontrolatzea eta ikasleari honen inguruan hitz egitea. Akustikoki egokiagoa den leku batera joatea.
Ikaslearen interesguneak ezberdinak izatea	Jarduerak moldatu, bere interesgunera gerturatuz.

Ikasleak bere ikaskideekin gelditu nahi izatea	Bertze bi ikaslerekin talde txiki bat sortzea. Motibatzen dizkioten jarduerak proposatzea.
--	--

3.5.3. Alderdi psikologikoak

Entzumena eta Hizkuntzaren alderdia modu egokian lantzeko, ezinbertzekoa da haren lanak oinarri gisa daukan aldedi psikologikoa aztertzea. Prebentzioaz gain, adin bakoitzean lantzen ditugun atalek justifikazio bat daukate, alderdi psikologikoetan aurkitzen dena. Izan ere, burmuina prestatu egon beharra da nahi ditugun alderdiak lantzeko; haren garapenaren arabera, adin bakoitzean gauza ezberdinak landu beharko baititugu, burmuinaren heldutasun mailak adieraziko dizkigunak. Honetarako, burmuina, haren funtzioak eta garapena aztertzea ezinbertzekoak dira.

3.5.3.1. Burmuinaren zatiak eta bakoitzaren eginkizunak

Burmuina, kraneoan kokatzen den eta gorputzaren funtzio guztiak kontrolatzen dituen organoa da (*National Cancer Institute*). Neuronaz² beteriko gorputz zatia da, haiek egiten dituzten inpultso bioelektrikoei³ esker, informazioa hartu, prozesatu eta transmititzen dutenak, gorputzari aginduak bidaltzen dizkiona.

Organo hau, (Mejor con salud AS-en, 2023, ikusi bezala) nerbio-sistema zentralaren⁴ parte izateaz gain, entzefaloaren⁵ barruan kokatzen da eta haren hiru zatietako bat osatzen du. Orokorrean, burmuinak bi zati dituela erraten da: ezker hemisferioa eta eskuin hemisferioa. Lehenengoak, aho eta idatzizko hizkuntza, lengoaiaren ulermen eta adierazpena, analisirako gaitasuna, arrazonamendu logikoa, zenbakikuntza problemen erresoluzioa eta antzekoak kontrolatzen ditu. Bigarrenak, hizkuntza ez berbala eta bai pentsamendu, bai oroitzapenen irudiez arduratzen da. Hala ere, biak batera lan egiten dutela uste da.

Honez gain, hemisferio bakoitza bi lobulutan⁶ ere banatu ahal da, beraz, guztira lau lobulu daude. Alde batetik, *lobulu frontala* daukagu, pentsamendu konszientearen prozesamenduaz, problemen ebazpenaz eta nortasuna eta portaeraz arduratzen dena, baita

² Nerbio sistemako zelula; nukleo, denditra eta axoiz osaturikoa.

³ Neuronaz neurona pasatzen den seinalea, informazio motore eta zentzumenezkoa pasatzea da bere eginkizuna, estimulua sortu zen gorputz atalera iritsi arte.

⁴ Nerbio-sistemaren zati, gorputzaren funtzio guztiak kontrolatzen dituena. Entzefaloa eta bizkarrezur-muinaz osaturik dago.

⁵ Buruaren barruan kokatzen den organoa, izakiaren funtzio guztiak kontrolatzen dituena.

⁶ Burmuin hemisferioak dituzten gune anatomikoak.

zenbait mugimendu txikiz ere. Bertzalde, *lobulu parietala* aurki dezakegu, ukimena, presioa, dastamena, tenperatura eta minarekin zerikusia duten estimuluak kontrolatzen dituen, baita nahita egiten ditugun mugimenduak ere. Gainera, *lobulu temporal*a ere dago, entzumen eta memoriarekin zerikusia duten estimuluak pertzibitu eta errekonozitzeaz gain, lengoia eta komunikazioarekin ere asoziatzen dena. Azkenik, *lobulu okzipitala* daukagu, ikusmen estimuluekin erlazionatzen dena.

Burmuinaren zatirik garrantzitsuenak aurreko hauek badira ere, hura osatzen duten bertze hainbat atal ere daude: garun-azala, gongoil basalak, sistema linbikoa, hipokanpoa, talamoa, hipotalamoa eta amigdala ([1. eranskina](#)).

Atal guztien artean Entzumena eta Hizkuntzarekin lotura gehien dutenak hauek dira: *garun-azala*, hizkuntza bezalako prozesu mental konplexuak kontrolatzen baititu; *gongoil basalak*, aurretik ikasitako mugimendu konplexuak kontrolatzen baititu (hitz egitea eta idaztea); *hipokanpoa*, memoriarekin lotura baitu, hizkuntza barneratzeko ezinbertzekoa; eta *talamoa*, zentzumen organoekin loturiko estimuluak interpretatzen baititu (hizkuntza garatzeko ezinbertzekoa da zentzumenetatik informazioa jasotzea).

3.5.3.2. Burmuinaren garapen orokorra

Burmuinaren garapen orokorraren inguruan solastatzeko Ana Lucia Camposek (2010) bere liburuan idatzirikoan oinarrituko naiz. Burmuinaren garapena, gestazioa⁷ gertatu ondorengoko hirugarren astetik aurrera hasi eta helduaro goiztiarrean bukatzen da. Denbora honetan zehar, genetikoki programaturiko ibilbidea jarraitzen du. Garapenaren urratsak gizaki guztietan berdinak dira.

Organo honen sorkuntza, nerbio sistema zentralaren garapenarekin hasten da, *plaka neural* izeneko zelulaz beteriko lamina *tubo neural*⁸ bihurtzen denean. Hemendik, bizkarrezur-muina eta burmuina garatzen hasten dira. Gainera, behin *tubo neurala* osaturik, zelulen sorrera hasiko da. Hurrengo asteetan, zelulen neurogenedi⁹, proliferazio¹⁰ eta migrazioari¹¹ esker, nerbio-sistema garatzen hasiko da, gorputz kanpoalde eta barnealdeko informazioa analizatu eta integratuko duena eta erantzun koordinatuei bide eman.

⁷ Sorkunde (obulua espermatozoidearekin fekundatu) eta jaiotzaren arteko denboraldia.

⁸ Estructura primitiboa, gestazioaren lehen hiru asteetan sortzen dena. Nerbio-sistemaren artean sortzen den lehen zatia da.

⁹ Neurona berrien sorkundea.

¹⁰ Zelulen kuantitatearen handitzea.

¹¹ Zelula baten desplazamendu prozesua, ehunen bitartez.

Zelulak handitzen doazen heinean, garunaren tamaina ere bai. Momentu horretan, *tubo neuralaren* gaineko aldetik hiru protuberantzia sortzen dira (prosenzefaloo, mesenzefaloo eta ronbenzefaloo); beheko aldean aldiz, bizkarrezur-muina sortzen da. Protuberantzia hauetatik, burmuinaren zati edo lobuluak sortzen doaz, beren garapen eta agerpena honakoa izanik: frontala, parietala, tenporala eta okzipitala. ([2. eranskina](#)) 8. astean garun-azala sortuko da.

Gestazioaren 20. asterako nerbio-sistema eta burmuinaren oinarriko estruktura sorturik dago. Hurrengo hilabeteetan, milaka milioi neurona sortuko dira, zirkuitu neuralen sorrera eta mielinizazioa¹² egingo dutenak. Zirkuitu hauei esker, ikasten, memorizatzen, sentitzen, irakurtzen, kontatzen... ikasiko du haurrak; mundua ezagutzeko eta bai garapen, bai sozializazio prozesua hasteko prestatzen da gorputza, burmuinaren garapenak, jaioi ondorengoko urteetan badirau ere.

Behin haurra jaiota, neurona berrien produkzioak eta haien arteko konexioak jarraituko du. Aurrekoari burmuinak lehen urteetan daukan plastikotasuna gehitzen badiogu, organoaren garapena ikaragarria izango da eta haurrak bere ikaskuntza eta garapen prozesuan oinarrikoak diren hainbat gauza ikasiko ditu, burmuinaren garapenean lagunduko dutenak. Esperientziek izugarriko papera hartuko dute, hainbat gaitasunen ikaskuntzak *aldi kritiko* bezala ezagutzen duguna baitute, non beren barneratzea askoz ere erraz eta etekingarriagoa den; esperientziek, gaitasuna *aldi kritikoaren* barruan garatzen lagunduko dute, honetarako beharrezkoa den informazio eta bizipenak eskainiz. Gaitasun bakoitzaren *aldi kritikoa* pasaturik, askoz ere zailagoa izango da hauek barneratzea.. Plastizitateak gaitasun hauen barneratzean eta burmuinaren aldaketan lagunduko du.

Azkenik, mielinizazio eta konexio neuronalen etengabeko sorkuntzak, burmuinaren garapenaren jarraikuntzaren oinarria izango dira eta memoriaren alderdian izugarriko aurrerapenak gertatuko dira; honek bertze gaitasunen garapenean lagunduko du, informazio gehiago barneratzeko bidea irekiko baitu.

3.5.3.3. Burmuina eta lengoia

Lengoia haurrak urte bete inguru daukanean agertzen da, lehenbiziko soinuak lehenago igortzen baditu ere, zizkadura, oihu edo antzekoen bitartez (Puyuelo, Rondal eta Wiig, 2000; Guarneros, Vega eta Silva, 2017 aipaturikoa). Honen agerpena, behin burmuina prestaturik dagoenean gertatzen da, sare neuronalen bitartez mundua pertzibitu eta

¹² Neuronen axoietan mielina zorroa sortzearen prozesua.

organoak hitz egiteko prest daudenean (Reigosa-Crespo, 2018, 90. or.). Hala ere, garapen prozesu bat da, urte batekin hasi eta zortzi urte inguruan bukatzen dena, behin kontzientzia fonologikoa barneraturik dagoenean (gutxienez, adin horretarako barneratua izan ohi du pertsonen gehiengoak). Kontzientzia fonologikoa, “lengoiaren soinuak ezberdindu eta errepresentatzeko gaitasuna da” (Reigosa-Crespo, 2018, 90. or.) ; hau lortu ostean, gure lengoaiak garapen prozesuan jarraitzen badu ere, hizkuntzaren moldeatzea etengabea baita, lengoia barneratu dugula erran daiteke, bere osagai nagusiak kontrolatzen baititugu.

Hizkuntza sortzeko, burmuinaren hainbat alderdi erabiltzen dira, goi mailako burmuin funtzioa izanik, zati baten baina gehiagoren lana bihurtzen baita. Osagai hauen gehiengo ezker hemisferioan kokatzen bada ere, hizkuntzaren nagusitasuna lateralitatearen¹³ arabera izango da (González eta Hornauer-Hughes, 2014), hau da, pertsonak daukan ezaugarri jakin batzuen arabera, lateralitate hau ezkerrekoa, eskuinekoa edo bilaterala izateko aukera gehiago izango ditu, hizkuntzaren nagusitasunean erabakigarria dena. Ezaugarri hauen artean, sexua, eskolaritatea eta adina ditugu; adibidez, lehenengoaren kasuan, hizkuntzak burmuinean errepresentatzeko duen moduari eragiten dio, emakumeek modu bilateralean egiten baitute eta gizonek ezker lateralitatearekin (González eta Hornauer-Hughes, 2014, 144 or.).

Hala eta guztiz ere, burmuin guztietan, eremu berdinek parte-hartuko dute hizkuntzaren lorpen eta sorreran, eta hurrengoak dira: (González eta Hornauer-Hughes, 2014, 144-147 or.):

- Broca saila.
- Wernicke saila.
- Brodmann saila.
- Argiaz gaindiko zirkunboluzioa.
- Zirkunboluzio angeluarra.
- Lobulu tenporala.
- Uninatutako faxkula.
- Beheko luzetarako faxkula.
- Faxo frontoi-okzipitala, behekoa.
- Eremu azpikortikalak.
- Eskuineko hemisferioa.
- Aurreurreko eremuak.

¹³ Izaki bizidunen gehiengoak izaten duten beren gorputzaren alde baterako preferentziaren adierazpena, hau da, ezkerreko, eskuina edo eskuin-ezkerreko izatea.

- Intsularen lobulua.
- Zerebeloa.
- Luzetarako goiko faszikulua.

Alderdi hauetatik, burmuina eta lengoairen arteko lotura eta balio garrantzitsuena dutenak *Wernicke* eta *Broca* dira, hizkuntzaren ulermen eta sorreraren funtzioak betetzen baitituzte. *Wernicke*, ezkerreko lobulu tenporalean kokaturik dago eta lengoaiaren ulermenerako burmuineko sail nagusia da. Aldiz, *Broca*, ezkerreko lobulu frontalean kokaturik dago eta hitz eta esaldi motzen adierazpenarendako plan eta patroiak bertan jartzen dira martxan, hau da, lengoaiaren sormen edo produkzioaz arduratzen da. Bi alderdi hauetako batean atzerapenak edo arazoak sortzen badira, lengoaiaren ulermen eta produkzioan arazo larriak garatuko ditu pertsonak. (Pradas, 2021)

Lengoaiaren garapen prozesuaz hitz eginez, lehenik aurre-hizkuntza lortzen da, “ulermena eta lehen hitzak baina aurreragoko etapa” gisa bezala ikusten duguna (Monfort eta Monfort, 2016, 21. orr). . Haurrak, jaiotzen diren momentutik, beren inguruko hizkuntzaren elementu nagusiak diskriminatzeko gai dira, gaitasun hau handituz doan heinean (Jusczyk eta Houston, 1999, Monfort eta Monfort, 2016 22.or-an aipatua izan zen bezala) . Honela, lengoaiaren ulermenerako bidean hiru etapa bereizten dira (Nuñez, 2014, Monfort eta Monfort, 2016 22.or-an aipatua izan zen bezala):

1. Bi hilabete: Haurrak, helduak erran eta egiten duenari erreakzionatzen du, begi kontaktua bilatuz.
2. Bortz hilabete: Objektuenganako interesa erakusten du.
3. Bederatzi hilabete: Pertsona eta objektuen artean begirada txandakatzen du, batetik bertzera joanez.

Momentu honetatik aurrera, haurrak lehen hitzen ulermena barneraturik daukala erran daiteke, zeinu eta soinu batzuen emisioarekin hasiz, pixkanaka, kontzientzia fonologikoa barneratzen doalarik, lehen hitz bihurtuko direnak (Harris, 2013). Baina, hau guztia gertatzeko, burmuinaren zenbait alderdi piztu eta prestatu beharra dira, zehazki, entzumenaren alorra (goiko giro tenporala), *Broca* saila (hizkuntzaren sormenerako prestatzen baita) eta zerebeloa (informazio guztia prozesatu eta integratzen du, garapen motorea egokia izateko), haurtxoa bere lehen hitzak errateko prestatuko dutenak. Behin hau gertaturik, lehenengo zizakadurak egingo ditu haurrak eta aurrerago hitz bihurtuko dira.

Hala eta guztiz ere, haurrak hizkuntza barneratu eta prozesu hau martxan jartzeko, helduen papera oso garrantzitsua da, haiek gabe ezingo baitute inoiz hitz egitea lortuko, ezta hizkuntza bat eta inguruko mundua ulertuko ere. Arestian aipatu bezala, pertsona guztiek *aldi kritiko* gisa ezagutzen ditugun denbora etapa edo mugak ditu. Behin hori pasata gaitasun batzuk eskuratzea askoz ere zailagoa bihurtzen da. Isabel o'shanahan Juanek (1995, 44.or.) Lenneberg-en teoriaren¹⁴ inguruan azaltzen duen moduan “ Etapen suzesio baten ondoren, non gaitasunen agerpen gradual bat ematen den, sekuentzia finko eta kronologiko bati jarraikiz, organismoaren garapenarengandik zehaztuta dago.” Hau da, gaitasun gehienek, ordena kronologiko bat jarraitzen dute, adin zehatz batean hasi eta beren garapenak etapa berak jarraituz; behin etapak pasata, gaitasun hauen lorpena ez da hain erraza izango. Gaitasun hauen artean, lengoaia edo hizkuntza aurkitzen da. Lenneberg-ek errandakoaren islada, haur batek bere lehenengo hitzak sei hilabeteak baina lehen inoiz errateko gai izango ez dela da (Ferrer, 2014, 78.orr), bere goiztiartasuna edozein dela ere. Beraz, haur baten burmuinak lengoaia garatzea nahi badugu, ezinbertzekoa izango da aldi kritiko honen barruan kokatzea. Honetarako, hizkuntza ahalik eta lehen eskaini beharko diogu, plastikotasun eta etaparen erabilerarekin burmuina martxan jarri eta hizkuntzaren ulermen eta produkzioa hasteko baliabideak ematen dizkiogularik. Izan ere, kontzientzia fonologikoa ikasi eta barneratzea nahi badugu, hura eskaini beharra diogu, beti ere, aldi kritiko honen barruan, bestena, Entzumena eta Hizkuntzako definizioan argi geratu den moduan, haur basati bat sortu ahalko genuke, burmuina ez baita inoiz lengoairako prestatuko eta aldi kritikoa pasata oso zaila izango baita horrelakorik lortzea.

3.5.3.4. Lengoaiaren garapena eskolan

Linguistikaren atalean aipatu den moduan, hizkuntza bat hainbat alderditan bana daiteke, lengoaiaren osagai bezala ezagutzen ditugunak; fonetika, fonologia, morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika dira. Gure bizitzan zehar, alderdi bakoitzak garapen jakin bat izaten du, bakoitzaren heltzea ezberdina baita. Hori dela eta, bakoitza gertutik aztertu eta haien garapen orokorra jakitea baliagarria izan daiteke, adinaren arabera alderdi bat edo berte aztertzea komeni baita prebentzio saioetan. Honen arabera 3. eta 4. taulan ([3.2. Adin tartea](#) ataleko [3. eta 4. taulak](#) ikusi) ageri diren puntuak landuko ditugu.

- *Garapen fonologikoa.*

¹⁴ Lenneberg teoria (1975). Haurrak heltze biologikoaren garapenagatik ikasten du solastatzen: zenbait adinetan, heltze honek bat egiten du bertze hizkuntzekin, gizakion prozesu genetikoaren garapenean unibertsaltasunean oinarritutako berdintasunak daude.

Jiménezek (2010) azaltzen duen moduan, fonologia jaiotzen garen momentuan hasten da garatzen. Bere agerpena lehenengo soinuen emisioarekin hasten da eta lau urteak arte handituz doa. Osagai honen barruan bi zati ezberdintzea nahitaezkoa da, ulermena eta produkzioa ez baitira momentu berean gertatzen. Izan ere, lehenengoa, jaiotzean hasten da; bigarrena, aldiz, hiru hilabeterekin hasten dela erran daiteke, orduan entzungo baitira haurrak sortutako lehen soinuak. Honen garapenak protohitzak ekarriko ditu eta, urte batekin, zenbait hitz esateko gai izango da, asimilazioak bezalako estrategiak erabiliz. Lau urterekin ia bokal eta kontsonante guztiak sortzeko gai izango da; hala ere, fonema batzuen produkzioa adin horren ostean iritsiko da (adibidez “r” eta “z” fonemak). Haur Hezkuntzako azken urterako, soinuen ezberdintasun eta aldaketak sumatzeko gai izango da, sinplifikazioak bezalako estrategiak egiten jarraitu ahal badute ere. Hauek gainditzeko momentua izango da. (3.2. [Adin tartea](#) ataleko 3. *taula* ikusi)

- *Garapen semantikoa.*

Nelsonen (1988, Acosta eta Morenok, 1999; Jiménez, 2010, 114. or. aipaturikoa) arabera, hainbat etapa ezberdindu daitezke garapen semantikoaren barruan:

1. Aurre lexikoa (10-15 hilabete): Gurasoek beren seme-alabek egiten dituzten emisioei izena jartzen diete, zeinu eta aurpegi espresioz beteriko egoerak direnak Nelsonen arabera, aurre hitzak dira, haurrari esperientzia bat partekatzeko balio baitio, baina ez erranahi bat.
2. Sinbolo lexikoak (16-24 hilabete): Hiztegia anitz handitzen da eta pertsona, objektu eta akzioei etiketa linguistiko bat jartzen die. Haurrak akats anitz egiten ditu, bai gehiegizko hedapena edo bai azpihedapena .
3. Etapa semantikoa (19-30 hilabete): Beren hiztegia 50 bat hitzekoa da eta etaparen bukaeran anitz handitzen da; gainera, beren produkzio orokorrean aurrerapen handiak egoten dira. Hiru urteak aldera, gehiegizko hedapena eta azpihedapena desagertu egingo dira. Sinonimia, antonimia, jerarkizazioa eta elkarrekotasuna agertuko dira. Lau urterekin konektoreen agerpena ailegatuko da.

- *Garapen morfosintaktikoa.*

Jiménezekin (2010) bat eginez, 18-30 hilabeteak aldera, bi elementu dituzten produkzioak hasten dira eta “primitibo” gisa etiketatu ditzakegun galdera eta negazioak hasten dira (ura ez); esaldiak ez dira bukatuak egoten, bi hitzez osaturik egon ohi dira.

24-30 hilabete ingururekin, hiru elementu dituzten sekuentziak agertuko dira.

30-54 hilabeterekin, gramatikaren handipena gertatzen da. Esaldiak luzatu egiten dira eta elementu gehiago dituzte. Adberbioak, pertsona eta numeroaren arteko konkordantzia... gertatzen dira.

Hiru urte eta erdirekin, lehenengo menpeko esaldiak agertzen dira. Lau eta erdirekin, esaldi pasiboak, kondizionalak... erabiltzen hasten dira. Diskurtso bat egiteko gai izaten dira.

- *Pragmatikaren garapena*

Jimenezek (2010) azaldu moduan, Lehen Hezkuntza arte aurki dezakegun pragmatika oso sinplea da, honen garapenaren oinarri bihurtuko bada ere. Hiru urte ingururekin, haurra elkarrizketen ezaugarri sozialen kontzientzia hartzen hasten da, baina, lau urteak arte beren produkzioetan ez dira entzuleari moldatuko, txandakatzea jadanik ulertzen badute ere. Behin adin honekin, emozio eta sentimenduei buruzko elkarrizketetan handitu egiten dira eta gai dira estilo linguistikoa inguruaren komunikazio, sozializazio eta interesetara moldatzeko.

Bortz urterekin oraindik gauzak oso modu zuzenean eskatuko dituzte, zeharkako eskakizunak beranduago ailegatzen baitira. Garapen pragmatikoaren seinaleetako bat, informazio berria esaldiaren bukaeran jartzen hasten direnean da, 5-6 urterekin ematen den fenomeno. 7-8 urteak arte ez dira gai izango narrazio luzeak, istoria luzeak eta elkarrizketa gabeko narrazioak.

4. LITERATURA ETA EH-REN ARTEKO UZTARKETA

4.1. Zergatik uztartu

Hurrengo lan hau aurrera eramateko, literatura eta Entzumena eta Hizkuntzaren uztarketa egingo da, haien arteko elementu amankomunek Entzumena eta Hizkuntzaren garapen egokian lagunduko baitute eta prebentzioa aurrera eramaten lagunduko du. Bi alderdi hauen uztarketak, ikasleen garapen integralean lagunduko digu.

Alde batetik, Colomerrek (2005) aipaturiko Haur Literaturaren funtzioen artean, sozializazio kultura aurkitzen dugu. Hau, EH-ren lanketan onuragarria izango da, ikasleak hizkuntzan murgiltzea baita haren ezaugarrietako bat. Sozializazio kulturalaren bitartez, ikasleak beren inguruko hizkuntzan murgilduko dira eta haren ezaugarriak barneratuko dituzte.

Bertzalde, Haur literaturarekin jarraituz, haren ezaugarrietako bat hizkuntza erraztasunez haurren mailara moldatzea da. Beren hizkuntzaren garapen maila eta beharrak kontuan hartuz, istorioan aldaketa batzuk egin beharko dira, EH-ren eremuko lanketa erraztuko duena, nahi diren alderdiak lantzeko aukera emango baitu. Beraz, literaturaren plastikotasunak, EH-ren alderdiak lantzeko aukera emango digu. Honez gain, literaturaren berezko alderdi dibertigarriak eta erabilera errazak EH-ren lanketa edozein profesionalek egitea ahalbidetuko du, baita haurren atentzioa mantentzea errazagoa bilakatu ere. ([3. eranskina](#))

Honez gain, ipuinen ezaugarrien artean (Monfort eta Juarez, 1993) hizkuntzarenganako hurbilpena eta memoriaren lanketa aurkitzen dira. Hizkuntza EH-ren oinarria izanik, bien arteko lanketarako arrazoi bihurtzen da, hizkuntzarenganako hurbilpenak ikasleei mesede egingo baitie eta alor honen lanketa bultzatuko du. Gainera, adin bakoitzean landu beharreko gaitasunen artean, entzumen memoriaren lanketa aurkitzen da eta ipuinaren ezaugarri propio honen bitartez landu daiteke.

Azkenik, *aldi kritikoei* aipamen bat egitea beharrezkoa da. Izan ere, arestian ikusi bezala, pertsonok gure gaitasunak garatzeko *aldi kritiko* bat daukagu. Lengoaiaren *aldi kritikoa* bizitzaren lehenengo urteetan egongo litzake (Centro Virtual Cervantes). Momentu horretan errazagoa da hizkuntza barneratzea, eta etekina atera nahi badiogu, haurrak ahalik eta input gehien jaso beharko du. Literaturaren bitartez *input* kantitate hau handitu egiten da, baita bere kalitatea ere, lexiko aberatsa aurkitzeaz gain, morfosintasiaren eta hizkuntzaren

bertze erabilerak aproposak baitira. Honela, *aldi kritikoez* eta literaturaz baliatuz, ikasleen entzumena eta hizkuntza landu eta kalitatezko *input*-a emango diegu, alor honen hobekuntzan lagunduko duena.

4.2. Nola lagundu dezake literaturak Entzumena eta Hizkuntza (EH) arloaren prebentzioan

Literatura eta EH-ren uztarketaren arrazoiekin bat eginez, literaturak alor honetan laguntzeko hainbat modu aurki ditzakegu eta bien ezaugarrietan oinarrituko da. GBL-aren helburuei begiraturaz, prebentzioan izan ditzakeen onurak anitz izango dira, bere garapen eta lanketa egokian parte-hartuko dutenak.

Literaturaren teoriaren atalean aipatu bezala, linguistika literaturaren parte da, hura gabe ezinezko izango litzatekeelako haren izateaz solastatzea, linguistikak lengoia osatzen baitu eta literaturak azken honen beharra baitauka. Aldi berean, EH-k linguistika erabiltzen du, lengoaiaren lanketa egiten baitu. Beraz, linguistikaren alor diren fonetika, fonologia, semantika, sintaxia, morfologia eta pragmatika landuko dira EH-n. Literaturak linguistikarekin daukan harremana dela eta, baliabide hau erabil dezakegu EH-n linguistikaren lanketa egiteko. Linguistika bien arteko *zubi* bezala uler dezakegu, amankomunean daukaten eremua. Honela, EH-k linguistikaren lanketa bilatuko du eta literaturak honetan lagundu ahal dio, linguistika bere parte baita eta, arestian ikusiriko arrazoiengan oinarriturik, honen plastikotasunak EH lantzeko baliabide apropos bihurtuko baitu.

Honez gain, literaturak EH-ko espezialistaren zereginak aurrera eramaten lagundu dezake. Ikasleen fonemen eta gaitasunen lanketarako, zeregin hauek prebentzioan oinarrituko dira. Linguistikarekiko lotura dela eta, espezialistak egin beharreko prebentzioa lana erraztu dezake literaturak, bien arteko loturaz baliatu ahal baita. Modu honetan, zeregin hauek literaturaren bitartez egin ditzake. Gainera, irakasleekin egin beharreko koordinazioa dela eta, literaturaren baliabidea eskaini ahal die. Irakasleak ipuinak lantzerako ohiturik daude eta bien arteko koordinazio eta EH-ren lanketa erraztuko luke, jadanik ezagutzen duten baliabidea baita, eroso eta erraza egingo zaiena.

Bertzalde, prebentzioa ikasle guztien lanketan oinarritzen da. Zenbaitetan guztientzat jarduerak sortzea eta atentzioa mantentzea zaila izan daiteke. Hori dela eta, liburuen ezaugarriek lan hau erraztu dezakete, guztiekin batera erabil daitekeen baliabidea baita eta haien atentzioa anitz pizten eta mantentzen baitute. Literaturak guztiekin batera lan egiteko aukera ematen du, prebentzioan oso garrantzitsua den alderdia. Honez gain, EH lantzerako

orduan komenigarria da gauzak aurretik prestatzea. Literaturak hori egiten langunduko du, nahi ditugun alderdiak lehendik aukeratu eta haien lanketa prestatzeko aukera emango baitigu.

4.3. Nola uztartu: GBL-aren helburua

Literatura eta EH uztartzeko arrazoiei, eta lehenengoak bigarrena langunduko lukeen moduei erreparatuz, GBL honen helburua biak bateratzen dituen hiru adibide praktikoko sortzea izango da. Honela, bi alorren bateratzea justifikatuko da eta haien ezaugarri amankomunak islatu. Uztarketa egiteko asmoarekin, EH-ren prebentzioan lantzen diren fonemak eta gaitasunak kontuan izango dira, baita ipuinen ezaugarri aldakorra eta ikasleengan izan dezakeen efektua ere.

Bi alorrak modu egokian uztartzeko, zenbait gauza izan beharko ditugu kontuan, ahalik eta jarduera osatuena lortzeko balioko diguna. Horregatik, *practicum* ataleko jarduerak zenbait pausotan oinarrituko dira, hurrenez-hurren aipatuak izango direnak. Batzuen artean aldaerak gertatzeko aukera egonik, hauek izango dira jarduera egiteko momentuan kontuan hartuko diren pauso edo jarraibideak. Jarraibide hauek *fingerprints* proiektuaren beharren arabera eraikiak izan dira eta aurreko teoria kontuan izan da.

1. Ikasleen adina kontuan izan, beren adinerako egokiak diren helburuak eta lengoai alderdiak garatzeko.
2. Landu nahi den lengoaiaren alorra aukeratu, gaitasunen eta fonemen taulak kontuan izanik.([3.2. Adin tartea](#) ataleko 3. eta 4. taulak ikusi)
3. Erabiliko den literatur baliabidea aukeratu, guk asmatuko dugun edo jadanik existitzen dena hautatuz.
4. Nola erabiliko da baliabidea: ohiko eran, objektuen laguntzarekin, irudi sinplifikatuekin...
5. Bi alorrak uztartzeko modua erabaki. Landu nahi den hizkuntzaren alderdiaren arabera literatur baliabideak garrantzi eta forma ezberdina hartuko du.
6. Beharrezko materiala bildu edo sortu.

7. Jarduera aurrera eramateko era aukeratu, lengoaiaren garrantzia kontuan izanik, diskurtsoa eta hiztegi egokia hautatuz.

Jarraibide hauen bitartez, bi alderdien uztarketa egokia izatea lortuko dugu, eta ziurrenik praktikarekin hobetzen joanen da. Gida honen bitartez ([4. eranskinean](#) aurki daiteke txantilloia) adibide anitz sor daitezke, denboralizazio, luzera, zailtasun, helburu... ezberdinak izango dituztenak. [5. eranskinean](#) hainbat ideia aurki daitezke, lan honetan garatzen ez badira ere, bi alor hauen arteko uztarketa ahalbidetzen dutenak, lanketa integrala egin eta Entzumena eta Hizkuntzaren prebentzioan erabil daitezkeenak.

Hurrengo *practicum* atalean, Haur Hezkuntzan Entzumena eta Hizkuntza lantzeko literaturaren erabileraren hiru adibide garatuko dira, ipuina ardatz izango dutenak. Honetarako, aurreko gida edo pauso hauek izango dira kontuan, prebentziorako literatur jarduerak sortzen lagunduko baitigute.

5. PRÁCTICUM

Literatura eta Entzumena eta Hizkuntzaren inguruko teoria guztia kontuan harturik, Gradu Bukaerako Lan honetan biak uztartuz Entzumena eta Hizkuntzaren alorreko prebentzioaren lanketa egingo da. Lan guztian zehar aipatu den moduan, literaturak barnebiltzen dituen gauza guztien artetik, ipuinak izango dira *practicum* atalaren ardatza, eta lengoaiaren alorretik, hiru urteko ikasleei dagozkien gaitasunak eta fonemak landuko dira.

Honetarako, hiru lanketa ezberdin proposatuko dira. Lehenengorako, ohiko ipuin bat erabiliko da, edozein dendatan eros daitekeena. Kasu honetan “Nola dastatu ilargia?” ipuina Michael Grejniec (1993) idazlearena. Bigarrenik, objektu fisikoekin sorturiko ipuin bat aurkeztuko da, GBL-rako apropos asmatuak. Azkenik, *fingerprints* proiektua azalduko da. Proiektu hau, Gradu Bukerako Lan honen amaierako produktua izango da. Bertan, irudi sinpleen bitarteko istorioak azalduko dira, modu anitzetan landu daitezkeenak, lengoaiaren alor guztiak lantzeko erabil ditzakegunak, Haur Hezkuntzako edozein mailatan. Proiektuaren helburua, bai irakasle bai gurasoek erabil ditzaketen eta lengoaiaren alderdiak lantzen dituzten istorioak sortzea izango da. Ondorengo lerroetan, ipuinak kontatzeko hiru modu hauetan gehiago sakonduko da; honetarako, praktikara nola eramaten diren azaldu eta aurreko teoria guztiaren sintesia egingo da.

5.1. Ohiko liburuak: *Nola dastatu ilargia?*

Michael Grejniec-en (1993) eskutik idatziriko liburu honetan, animaliek ilargia dastatu nahi dutela erabakitzen dute. Honetarako, guztien laguntzarekin, bata-bertzearen gainean igotzen dira, beren helburua lortu eta bakoitzak ilargiaren zati bat dastatzen duen arte. Amaieran, ilargia laku batean islatzen dela ikus dezakegu eta arrainak bertatik zati bat kentzen dio, gainontzeko animaliek egin izan behar duten esfortzua ulertu gabe.

1993an idatziriko liburu hau, hainbat hizkuntzatan aurki dezakegu eta hurrei anitz gustatzen zaie. Edonola ere, Entzumena eta Hizkuntza arloko prebentzioa aurrera eramateko, ipuin kontalariak zenbait gauza izan beharko ditu kontuan, istorioa aldatzen ez bada ere, bertze elementu batzuk hartuko baitute garrantzia. Honetarako, ipuina ongi ezagututa, arestian aipaturiko pausoak jarraitu dira [4. eranskineko](#) eskema beteko da ([6. eranskinean](#) betarik aurki dezakegu).

Eskeman ikus daitekeen moduan, literatura eta Entzumena eta Hizkuntzaren uztarketa egin baino lehen, hainbat gauza izan dira kontuan gure helburua betetzeko asmoarekin. Helburu hau, lengoaiaren hainbat alor lantzea izango da, kasu honetan, *entzumen memoria* eta "J" "F" "K" "M" fonemak. Lortu nahi dugunaren arabera landuko ditugun lengoaiaren alorrak ezberdinak izango dira; batzuetan, fonema eta gaitasun ezberdinak landuko ditugu, bertze batzuetan, gaitasun bakarra edo fonema bakarra. Helburuen ezaugarri aldakorrek, landu nahi ditugun lengoaiaren alorrean eragina izango du.

Hau honela, bien uztarketa hainbat modutan egingo da. Honetarako, Juan José Severorekin (2018) bat eginez, ezinbertzekoa izango da istorioa ongi ezagutzea eta aurretik ipuin-kontaketa prestatzea. Baliteke batzuetan hau beharrezkoa ez izatea, baina gomendatzen den zerbait da, kontakizunaren kalitatea handitzeaz gain, Entzumena eta Hizkuntzaren alorrak kontzienteki eta hobeto landuko baitira, eta gure helburuetara iristen lagunduko digu.

"Nola dastatu ilargia?" liburuaren erabilera eta Entzumena eta Hizkuntzarekiko uztarketa egiteko, eskeman ikus daitekeen hurrengo pausoak jarraituko dira, lengoaiaren alorra lantzen lagunduko diguna:

- Animalia bakoitzari adjektibo, hitz edo esaldi bat jarriko zaio. Behin animalia eta hitza istorioaren bitartez ikasleei aurkezturik, animalia agertzen den hurrengo aldieetan ikasleek animaliarekin bat egiten duen hitza erran arte itxarongo da.
- Animalien ordena haiek erran arte itxaron edo gaizki erran.
- "Jirafa" "J" fonemarekin eta "Lehoia" "L"-rekin hasten direnez, haien adjektiboek ere fonema horiek eramango dituzte eta anitz landuko diren animaliak izango dira.
- "K" eta "M" fonema dituzten "Dordoka" eta "Tximino" hitzetan bertze fonemekin ordezkaturiko dira.

Beraz, hau honela izanik, animalia bakoitzari hurrengo adjektiboa, esaldia edo hitza jarriko zaio.

7. taula.

Animalien adjektiboak

ANIMALIA	ADJEKTIBOA
Dordoka	<i>Berdea</i>

Elefantea	<i>Sudur luzea</i>
Jirafa	<i>Japoniarra</i>
Zebra	<i>Marraduna</i>
Lehoia	<i>Luze lotsatia</i>
Azeria	<i>Azkarra</i>
Tximua	<i>Marroia</i>
Xagua	<i>Txikia</i>

Arestian aipatu bezala, istorioa kontatzeko orduan hau guztia kontuan izango da. [7. eranskinean](#) ipuinaren orri bakoitza nola kontatuko den aipatzen da; hala ere, hona hemen uztarketa bakoitzaren adibide bat:

8. taula.

Istorioren uztarketaren adibideak

UZTARKETA MODUA	ISLADA
Adjektiboen ezarpena	<ul style="list-style-type: none"> • <i>8.orria: Animalien ordenarekin hastean, dordoka erratean, “nolako dordoka?” galdetuko dugu edo bertze nolabaiteko baliabideak erabili haiek erantzuna eman arte.</i> • <i>16.orria: Animalien ordenarekin, azeria erratean “azkarra” erran beharrean “lodia”, “handia” edo bertze nolabaiteko aldaera bat eman. Gure aurpegiekin edo “ziur azeri lodia?” bezalako galderekin lagundu ahal diegu, haiek gu zuzendu arte. Seguruenik, eta ipuina behin baina gehiagotan kontatuta, ez da horrelakorik beharko.</i>

Animalien ordena	<ul style="list-style-type: none"> • 13.orria: <i>Jirafa eta gero lehoia doala erran, zebraren ordez. Haiek zuzendu arte itxaron.</i> • <i>Orrialde guztietan animalien ordena erraten joango gara, bere adjektiboa barne. Animaliak tapatuz, haiek erran arte itxaron. Agian laguntza eman ahal zaie adjektiboak erranez edo lehen letra...</i>
“J” eta “L” fonemak	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Animalia bakoitza agertzen denean, adjektiboa erratearekin aski izango da. Hala ere, hau animalia guztiekin egingo da.</i>
“K” eta “M” fonemak	<ul style="list-style-type: none"> • 9.orria: <i>“Dordoka” beharrean “Dordoa” edo “Dordoma” erran.</i> • 20.orria: <i>“Tximua” beharrean “Txiua” edo “Txitua” erran.</i>

5.2. Objektu fisikoak: *Neoren amesgaiztoa* (asmatutako ipuina).

Bigarren adibide honetan, objektu fisikoaren bitartez kontaturiko ipuin baten adibidea jarriko da martxan. Hau aurrera eramateko, bi bide har ditzakegu. Alde batetik, jadanik existitzen den ipuin bat har dezakegu eta objektu errealekin kontaktu, hau da, panpinekin, margoekin, hariarekin, janariarekin... Bertze aldetik, eta orain ikusiko dugun moduan, istorioa asma dezakegu. Honek istorioa gure helburuen arabera sortzeko aukera emango digu.

“Neoren amesgaiztoa” izeneko kontakizun honetan, Neok amesgaizto bat dauka eta etxetik ihes egiten du, harri baten forma hartu eta bere burua mozorratuz. Haren lagun Mirak Neo bilatzeko bideari ekinen dio, baina dakien gauza bakarra hark egiten duen soinu berezia izango da. Bidean hainbat harri aurkitzen ditu eta bakoitzak pista batzuk ematen dizkio, bertze harri batengana joan eta Neo aurkitzeko bidean aurrera egiten lagunduko duena. Harrien kolore eta soinu ezberdinak izango dira Miraren bidea zehaztuko dutenak.

Kontakizun hau, hiru urteko haurrekin *entzumen diskriminazioa* lantzeko asmoarekin asmatu da, Entzumena eta Hizkuntzaren prebentzioaren alorrean lan eginez. Honetarako, [4](#).

[eranskineako](#) taula bete da, istorioaren ardatz nagusia eta ildoak buruan izanik. [8. eranskineko](#) taula da “Neoren amesgaiztoa” islatzen duena. Behin hau argi izanda, istorioa asmatu da, *entzumen diskriminazioa* lantzeko helburua betetzeko asmoarekin.

Kasu honetan, ikasleek lortu beharreko gaitasun bat bakarrik landuko da, hizkuntzaren erabilerak fonemen zeharkako lanketa implizitua ekartzen badu ere. Izan ere, ipuin honetan, fonemak behin eta berriz landuko dira, soinu ezberdinen presentzia oso handia baita. Honekin, fonemak orokorki landuko dira, batzuen lanketa espezifikoa eman gabe. Hala ere, helburu nagusia *entzumen diskriminazioa* lantzea izango da.

Literatura eta Entzumena eta Hizkuntzaren uztarketa hau egiteko, hurrengo pausoak jarrituko dira. Taula honetan, bakoitzaren adibide bat agertzen da islaturik.

9. taula.

Istorioaren uztarketaren adibideak

UZTARKETA MODUA	ISLADA
Protagonistaren soinua	Neo ezkutaturik dago eta hari buruz dakigun gauza bakarra egiten duen soinua da. Ikasleek, Neoren lagunarekin batera, harri guztiak entzun beharko dituzte, bere soinua aurkitu arte. Istorio guztian zehar errepikatu beharko da, haiek ongi ikasi arte.
Harrien bilaketa	Neoren bilaketan, harri bakoitzak hurrengora eramango du, bere itxura pixka bat azaltzen badute ere, hark egiten duen soinuarekin ezagutuko du. Honetarako, aurreko harriak bere soinua egingo du eta ikasleek konparatu egin beharko dute, zuzena aurkitu arte.
Harrien soinuen konparaketa	Bi harriren soinuak konparatzea: altuagoa...

[9. eranskinean](#) “Neoren amesgaiztoa” ipuina aurki daiteke, soinuen bitartez eta harriekin errealitatera ekartzen dena. Ipuinaren eta materialen sorrera lan honetarako

espreski egin dira. [10. eranskinean](#) istorioa nola kontatuko den azaltzen da, pasarte bakoitzean soinuekin egin beharko dena azaldu eta uztarketa osatua agerian uzten duena.

5.3. Fingerprints.

Praktika atalaren azken zati honetan, *fingerprints* proiektua aurkeztu nahi da. Proiektu hau Entzumena eta Hizkuntzaren prebentzioaren ideiarekin sortu da, irakasle nahiz gurasoek erabil dezaketen materialen sorreran oinarriturik. Material hau inoren laguntzarik gabe erabil daitezkeen bideo motzetan oinarritzen da, ipuinak errepresentatzen dituztenak. Bideo hauek soinuz beterik egongo dira, baina ez da inolako hitz edo deskripziorik agertuko. Aldi berean, bideo bakoitza ipuin formatuan egongo da eskuragarri, idatziriko testu batekin, adin bakoitzera egokiturik egongo dena. Istorio motz bakoitzak Entzumena eta Hizkuntzaren alderdi bat landuko du, fonemen lanketa beti emango bada ere.

Fingerprints proiektuak aurkeztuko dituen istorioak motzak eta sinpleak izango dira, beren helburua Entzumena eta Hizkuntzaren lanketa baita. Soinuak izango dira protagonista, fonema ezberdinez osaturik egongo direnak. Istorio bakoitzak bere helburu propioak izango ditu, beren garapena ezberdina izango baita. Aurrerago, zenbait adibide aurkituko ditugu, eta sorturiko lehen materialaren aurrekaria izango da.

Proiektuaren ideia, lehenengo, bideoak ikasleek bakarrik ikustea izango da, ondoren, istorioaren lanketa guraso edo irakasleekin gertatuko da. Posible izango da istorioa bakarrik lantzea, bideorik gabe; honek fonemen lanketa gutxituko du eta liburuekin lantzen diren EH-ren alderdiak bakarrik landuko dira. Fonemen lanketa espezifikoa eta handiena bideoen bitartez emango da, nahi bezala errepresentaturik agertuko baitira, beraz, bideoak aldera batera uzten badira lanketa murriztu egingo da. Hala ere, nahi bada, liburua bakarrik irakur daiteke edo bideoa bakarrik ikusi, guztia egiteko denborarik ez badago. Bertzalde, euskarri berarekin alderdi ezberdinak landu nahi dira, eta etxean nahiz eskolan egin daiteke. Entzumena eta Hizkuntzaren lanketa gurasoen eskura jarri nahi da, erraza eta erakargarria den ipuinen formatu honetan.

Aldi berean, istorio bakoitzarekin emango den alderdiaren lanketa ezberdina izango da, adinaren arabera, hiru urteko ikasle baten eta sei urteko ikasle baten beharrak ezberdinak izango baitira. Fonemekin gauza bera gertatuko da. Azken finean, ikasle talde bakoitzak beren mailara egokiturik izango ditu helburuak.

Material guztia ([11. eranskina](#)) webgune batean bilduko da, haien eskuragarritasuna erraztu eta nahi den alderdia lantzeko materiala aurkitzea errazagoa bihurtzeko. Webgunean, guraso edo irakasleei, Entzumena eta Hizkuntzaren inguruko informazioa emango zaie, haren garrantzia eta beharra argi utziz, hizkuntzaren estimulazioa denen esku baitago. Proiektu honekin, Entzumena eta Hizkuntzaren inguruko oinarrizko informazioa azaldu eta guraso nahiz profesionalen eskuetan materiala jarri nahi da, lengoaiaren alderdia lantzeko. Webgunean bideoak eta istorioak aurkituko dira eta bere helburu nagusia Entzumena eta Hizkuntzari ikusgaitasuna eman eta haren lanketa erraztea izango da.

Beraz, helburuak bete eta Entzumena eta Hizkuntzaren lanketaren eskuragarritasuna errazteko, material zehatza sortu da, honako honetan aurkeztua izango dena. Materialaren adibide hau, hiru urteko ikasleetan oinarritzen da berriz ere eta, aurreko ataletan bezala, bere sorrerarako [4. eranskineko](#) jarraibideak izan dira kontuan. Jarduera guztia [12. eranskinean](#) aurki daiteke osaturik. Hala ere, egin dezagun honen inguruko azalpena.

[13. eranskinean](#) ikus daitekeen moduan, ipuin honek jarraituko duen ildoak honakoa izango da. *Fingerprint* laranja ballet dantzarien moduan saltoka ibiliko da bidean zehar, *fingerprint* urdina aurkitzen duen arte. Bidea jarraitu ezin duenez, hura esnatzen saiatuko da, musika instrumentuak erabiliz. Hala ere, ez du hau ernatzea lortuko eta txoria pasa arte lo egongo da. Momentu horretan, *fingerprint* laranja urdina ernatu dela ikusirik, haserretu eta haren atzetik korrika hasiko da, nahita egin duela pentsatzen baitu.

Istorio honen bitartez, lengoaiaren erabilera landu nahiko da, baita musika instrumentuen lexikoa eta “ballet” bezalako hitzak. Honez gain, *entzumen memoriaren* lanketa ere egingo da. Honela, helburua lengoaiaren lanketa orokorra egitea izango da, ikasleei solastatzera bultzatzeko eta beren jakintzak ezagutzeko. Helduak galderen bitartez egin beharko du hau; honetarako argibideak eta galdera adibideak [14. eranskinean](#) aurkituko dira. Istorio idatziarekin bat, orrialde bakoitzean egin daitezkeen galderak aurki daitezke.

Modu honetan, Entzumena eta Hizkuntza landuko da, hasieran, bideoarekin ([15. eranskinean](#) aurkitzen da), fonemak landuko dira. Ondoren, ipuina kontatzerakoan, lanketa orokorragoa izango da eta *entzumen memoria* landuko dugu; hala ere, fonemak oso presente egongo dira eta ikasleek hauen gainean duten maila jakingo dugu (honetarako beharrezkoa izango da adin bakoitzean lortu behar dituzten fonemak zeintzuk diren jakitea). Gainera, behin hau guztia eginda, joko edo jarduera baten bitartez istorioan agertutakoa lantzeko aukera izango dugu. Kasu honetan, instrumentuen inguruko jarduerak presta ditzakegu ([16. eranskina](#)) edo emozioen ingurukoak ([17. eranskina](#)).

Istorio honen erabilera bertze mailetara ere eramango da, helburuak aldatu baina euskarri bera erabiliz. Honetarako, bideoan erabilitako fonemak aldatu egingo dira eta ipuina kontatzerakoan gure helburuak ezberdinak izango dira. Ipuin honek bertze adinetan izango lukeen forma ikusteko [18. eranskinean](#) taula bat aurki dezakegu, egokitzapen honen adibide izango dena.

Beraz, *fingerprints* proiektuak entzumena eta hizkuntza lantzeko, ondorengo pausoak jarraituko ditu, ipuinetan oinarrituko direnak.

1. Ipuinaren bideoa jartzea.
2. Helduak ipuina kontatzea, orrialde bakoitzeko argibideekin.
3. Ipuina ardatz izango duen jarduera baten lanketa.

Honekin guztiarekin, Entzumena eta Hizkuntza literaturaren bitartez lantzea lortuko dugu, guraso nahiz irakasle batek egin dezakeen modu errazean. Arestian aipaturiko hiru faseen artean hirugarrena irakasleei zuzendurik dago, gurasoei hura aurrera eramateko aukera ematen bazaie ere. Izan ere, lanketarik garrantzitsuena bideo eta ipuin kontaketa edo lanketaren bitartez emango da, jarduera egitea gomendatzen bada ere.

6. EZTABAIDA

Gratu Bukaerako Lan honetan zehar ikusi den moduan, Entzumena eta Hizkuntzaren eta literaturaren arteko uztarketa posiblea izateaz gain, onuragarria ere bada. Teoria atalean ikusi den moduan, literatura hizkuntzaz josirik dago, hura sortu eta azaltzeko modurik ohikoena lengoaia baita. Izan ere, lengoaiarik gabe ezinezkoa da literatura sortzea, gure ideak eta istorioak komunikatzeko modu bat behar baitugu eta, horri, hizkuntza deitzen diogu.

Proiektu honen hasierako erronka, literatura EH-rekin uztartzea da. Bide honi ekiteko eta haiek lantzeko materiala sortzeko, teoria sakonki landu eta bi alor hauen arteko loturak bilatu dira. Material hau literatura eremuko ipuinetan oinarritu da, haurrek gozatzen duten baliabidea baita, guztien eskura dagoena. Hala ere, *practicum* atala egiterakoan zailtasun berri bat agertu da, guraso nahiz irakasleek Entzumena eta Hizkuntzaren erranahi eta balioa ezagutu eta haiek lantzeko materiala eskuragarri izatea. Honela, *fingerprints* proiektuari

hasiera eman zaio, bi alderdiak uztartu eta manipulatzeko erraza den materialean oinarritu dena.

Guztia ikusirik, literaturaren bitartez Entzumena eta Hizkuntza lantzea posible dela erran dezakegu, helburuaren arabera, literaturaren erabilera ezberdina egiten bada. Hala ere, uztarketa guztietan gertatzen den moduan, hainbat arazo ere aurki ditzakegu, alderdi onuragarriez ahaztera eraman gaitzakeena. Honela, haien inguruan eztabaidatzea gustatuko litzaidake, lan honetan zehar arazo hauei aurre egin baitzaie eta uztarketa honen kontra egon daitezkeen arrazoiak islatzeak haiei aurre egiten lagunduko baitigu; honez gain, uztarketa honen onurak azpimarratu eta haren erabileraren aukeraketan lagunduko digute.

Alde batetik, ipuinak eraldatzean arazoak aurki ditzakegu, batzuk ez baitira egokiak eta bertze batzuekin ezingo baitugu lan egin. Uztarketa honek lan handia eskatzen du, materialaren sorrera eta ipuinaren egokitasuna beharrezkoak baitira. Batzuetan lan handia egin beharko dugu egokia den liburu bat aurkitzen eta gure helburuetara eraldatzen. Honengatik, lan egiteko modu hau pisutsua eta latza izango da batzuentzat, espero ez ditugun emaitzak badituzte, egindako lan guztiak ezertarako balio ez duela pentsatzera eramanen baikaitzake. Hau egia den arren, anitzetan gure lanak merezi duela ikusiko dugu eta ikasleek lengoaiaren alorrean aurrerapenak egiten dituztela sumatu, behin eta berriro egin behar den lanketa bada ere, jarraitasuna ezinbertzekoa baita emaitza onak lortzeko. Uztarketak modu egokian egitea prozesu luzea izango da, baina esperientzia eta lanarekin hobetzea lortuko da.

Honez gain, uztarketa egiterako orduan, Entzumena eta Hizkuntzaren inguruko jakintzak izatea beharrezkoa da, hura ulertu eta hasieran aipaturiko taulekin beharrezko oinarria eskura badugu ere. Gauza guztiekin bezala, ikasleei zerbait erakutsi nahi badiegu, honen inguruko jakintzak eskuratu beharko ditugu lehendabizi. Honetarako, *fingerprints* proiektuaren webgunea izango dugu eta [4. eranskineko](#) jarraibideen, nahiz fonema eta gaitasunen taulen bitartez, jakintzak barneratzen joan eta uztarketa errazagoa egingo zaigu. Azkenean, lan handia egin beharko ds, hainbat jakintza barneratu beharko baititugu, baina laguntzarekin eta emaitzen agerpenarekin, pasatako denborak merezi duela ikusiko dugu.

Bertzalde, sortu dugun edo erabili dugun uztarketa ez egokia edo interes gutxikoa dela ikusiko dugu batzuetan, baita guztien mailara egokiturik ez dagoela, zenbait ikasle bertzeen “aurretik” egongo baitira. Arazo hau edozein jarduerarekin aurki dezakegu, ez da uztarketa honek bakarrik eman dezakeen emaitza. Hala ere, lan egiteko modu honek, istorioa edo jarduerak egokitzen lagunduko digu, ikasle guztien mailara iristera lagunduko

diguna. Honek lan gehiago eskatuko du, baina irakasle lanaren ezaugarrietako bat ikasle guztiei erakustea da, materialaren egokitzapena egin eta zerbaitek funtzionatzen ez badu, balorazio bat egin eta hurrengorako kontuan izatea.

Azkenik, pertsona batzuen iritziz, ipuinak gozatzeko dira eta bertze edonolako lanketak alde batera geratu beharko luke. Uztarketa honek, Entzumena eta Hizkuntza lantzeko material bitartekari eginez, literatura, ikasketaren parte bihurtzen du. Hala ere, ikasleek ipuinez gozaten jarraituko dute; hau da, denbora gustora pasa eta ipuinak beren munduaren parte bihurtuko dituzte. Uztarketa honek ez du gelan kontatzen diren ipuin guztiak lan egiteko material bihurtzen. Ipuinen presentzia egunerokoan egon beharra da, lasaitzeko eta gozatzeko modu bezala. EH eta literaturaren uztarketa honek ipuinen erabilera handitu eta zeharkako lanketa bat egiten du, jarduera dibertigarri eta modu natural batean, ikasleei ipuinen kontaketa parte-hartzea anitz gustatzen baitzaie. Haurrak beti izango dira kontuan eta lan egiteko modu hau prest badaude bakarrik egingo da. Askotan, istorioei behar duten lekua emango zaie, uztarketa honek bere momentua izango duen moduan.

Hau guztia erranik, Entzumena eta Hizkuntzaren eta literaturaren lanketa ez da lan erraz ez azkarra. Irakaslearen aldetik prestutasuna eta lan egiteko gogoia beharrezkoa izango dira. Edonola ere, arazo honi erantzuteko, *fingerprints* proiektua sortu da, irakasle eta gurasoen eskuetan uztarketa honen oinarri den materiala eskuragarri egoteko asmoarekin. Uztarketaren bidean aurkituriko arazo eta emaitzek, plataforma eta material honen beharra erakutsi digute, ikasle, irakasle eta gurasoentzat onuragarria izango den proiektuaren sorrera ekartzen lagunduko lukeena.

CONCLUSIONES

Para dar por finalizado este TFG, se procederá a hablar de las conclusiones surgidas tras su análisis y reflexión. Recordamos que el objetivo del trabajo era combinar la literatura con la Audición y Lenguaje, trabajando la prevención tomando como base (del TFG) los cuentos. El proyecto *fingerprints* ha sido la actividad principal, junto a los otros dos ejemplos en los que se han combinado las dos áreas. Por tanto, teniendo en cuenta la teoría y el *prácticum*, se ha podido llegar a unas cuantas conclusiones.

Por un lado, la combinación entre las dos áreas resulta natural, pues la literatura tiene como base el lenguaje, componente principal de AL. Por ello, la combinación parece darse sola, ya que tienen características comunes y la literatura precisa del lenguaje. Al contar un cuento, apelamos a la audición de los/las alumnos/as y el mensaje es transmitido mediante el lenguaje, un área que ellos/as también deben controlar. La literatura precisa de AL, posibilitando su combinación de manera natural.

Por otro lado, mediante la literatura es posible trabajar todas las bases de AL englobadas por la prevención, ya que los fonemas y habilidades pueden trabajarse mediante los cuentos, como ha sido demostrado en el *prácticum*. De esta manera, el proyecto *fingerprints* y los ejemplos adicionales nos demuestran esta posibilidad y cómo llevarla a cabo. La naturalidad de la combinación crea esta posibilidad.

Además de esto, los cuentos presentan características por las cuales son fáciles de transformar y adaptarlos, creando la posibilidad de trabajar diferentes objetivos con la misma historia. Dependiendo del alumno/a y los objetivos, los cuentos pueden ser cambiados. Mediante la creatividad, podremos adaptarlos y también será la herramienta que nos facilitará la posibilidad de moldearlos a nuestro antojo.

Por último, respecto al producto final, el proyecto *fingerprints*, podemos decir que su presencia conllevaría varias respuestas. Para la mayoría del profesorado, la creación y acondicionamiento de los materiales y cuentos resulta un arduo trabajo que exige mucho tiempo, tanto del día a día como los relacionados con AL. De esta manera, el material del área de AL estaría creado, cubriendo las necesidades con mayor facilidad. Asimismo, los padres/madres tendrían una plataforma a la que acudir para entender la importancia de AL y conseguir materiales. Este proyecto facilita la labor de AL, trabajando transversalmente y enfrentándonos a las dificultades proyectadas durante los últimos años en esta área.

Dicho esto, podemos afirmar que el objetivo del TFG ha sido logrado, pues se han combinado exitosamente la literatura y AL, dejando claro sus similitudes. De cualquier manera, la combinación ha sido fácil y natural, puesto que ha demostrado su valor práctico y ha dado comienzo al proyecto *fingerprints*, plataforma que acercará AL a padres, madres y profesorado, guardando material que combina las áreas de AL y literatura. Al final, con los objetivos ejecutados, se ha demostrado la similitud de las dos áreas, justificando la creación del material y plasmando los beneficios de la combinación.

ERREFERENTZIAK

Acosta, V. M. y Moreno, A. M. (1999). *Dificultades del lenguaje en ambientes educativos. Del retraso al trastorno específico del lenguaje*. Masson.

Acuña, X. y Sentís, F. (2004). Desarrollo pragmático en el habla infantil. *Onomázein*, 10, 33-56. <https://ojs.uc.cl/index.php/onom/article/view/31625/40969>

Aprendiendo con Montessori. (11 de enero de 2017). 25 recursos originales para contar cuentos. *Aprendiendo con Montessori*. <https://www.aprendiendoconmontessori.com/2017/01/25-recursos-originales-para-contar/>

Ballesteros, M.A. (2020). *Programación de Audición y Lenguaje*[Archivo PDF]. https://www.murciaeduca.es/iesgalileo/sitio/upload/PROGRAMACIONES_DEL_DEPARTAMENTO_DE_ORIENTACION.pdf

Barambio, Y. (12 de marzo de 2018). Imaginario colectivo: cómo utilizarlo a tu favor cuando estás escribiendo. *El tintero*. <https://www.eltinteroeditorial.com/imaginario-colectivo>

Bosch, L. (1983). El desarrollo fonológico infantil: una prueba para su evaluación. *Anuario de psicología*, 28, 85-114. <https://www.raco.cat/index.php/AnuarioPsicologia/article/download/64515/96222>

Campos, A.L. (2010). *Primera infancia: una mirada desde la neurociencia*. Organización de los Estados Americanos. <http://www.iin.oea.org/pdf-iin/rh/primera-infancia-esp.pdf>

Cervera, J. (2003). Adquisición y desarrollo del lenguaje en Preescolar y Ciclo Inicial. *Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, España*. <http://www.ardilladigital.com/DOCUMENTOS/EDUCACION%20ESPECIAL/LOGOPEDIA/DESARROLLO%20LENGUAJE/Adquisicion%20y%20desarrollo%20del%20L%20en%20Preescolar%20y%20ciclo%20inicial%20-%20Juan%20Cervera%20-%20art.pdf>

Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Revista de Filología y su Didáctica*, 12, 157-168. https://cvc.cervantes.es/literatura/CAUCE/pdf/cauce12/cauce_12_007.pdf

Colomer Martínez, T. (2005). El desenlace de los cuentos como ejemplo de las funciones de la literatura infantil y juvenil. *Revista educación*, num extraordinario 2005, 203-216. <https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:423a74a2-5403-4fa2-9a1d-e4df2cddbdf84/re200516-pdf.pdf>

Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis.

Crece de Colores (11 de agosto de 2022). ¿Qué es la conciencia fonológica y cuál es su importancia?. *Crece de Colores*.

<https://www.crecerdecolores.com/post/qu%C3%A9-es-la-conciencia-fonol%C3%B3gica-y-cu%C3%A1l-es-su-importancia>

CREENA. (2021). *Instrucciones generales para la actuación de la red de audición y lenguaje* (AL)[Archivo PDF].

<https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/27802/Instrucciones-generales-Red-AL.pdf/84758783-203e-fab2-6fe8-559c58e65b65>

Definición ABC. (s.f.). Lateralidad. En *Definición ABC*. Recuperado el 9 de mayo de 2023, de <https://www.definicionabc.com/general/lateralidad.php>

Diccionario Clínica Universidad de Navarra. (s.f.). Migración celular. En *Clínica Universidad de Navarra*. Recuperado el 9 de mayo de 2023, de <https://www.cun.es/diccionario-medico/terminos/migracion-celular#:~:text=Proceso%20por%20el%20cual%20una,citoplasm%C3%A1ticas%2C%20llamadas%20lamelipodios%20y%20filopodios.>

Diccionario de cáncer del NCI. (s.f.). Embarazo. En *Instituto Nacional del Cáncer*. Recuperado el 9 de mayo de 2023, de <https://www.cancer.gov/espanol/publicaciones/diccionarios/diccionario-cancer/def/embarazo>

Diccionario de cáncer del NCI. (s.f.). Encéfalo. En *Instituto Nacional del Cáncer*. Recuperado el 9 de mayo de 2023, de <https://www.cancer.gov/espanol/publicaciones/diccionarios/diccionario-cancer/def/encefalo>

Diccionario de cáncer del NCI. (s.f.). Proliferación celular. En *Instituto Nacional del Cáncer*. Recuperado el 9 de mayo de 2023, de <https://www.cancer.gov/espanol/publicaciones/diccionarios/diccionario-cancer/def/proliferacion-celular>

Diccionario de término cla de ELE. (s.f.). Hipótesis del período crítico. En *Centro Virtual Cervantes*. Recuperado el 20 de mayo de 2023, de https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/diccio_ele/diccionario/hipotesisperiodocritico.htm#:~:text=Seg%C3%BAn%20la%20hip%C3%B3tesis%20del%20per%C3%ADodo,capacidad%20para%20aprender%20una%20lengua.

Eagleton, T.(1983). *Una introducción a la teoría literaria*. FCE.

Elsevier. (28 de octubre de 2019). *Funciones de la corteza cerebral: áreas de Wernicke, Broca y de asociación límbica*. <https://www.elsevier.com/es-es/connect/medicina/edu-funciones-de-la-corteza-cerebral>

Euskaltzaindia. (s.f.). Arte. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023, de https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&non=sarreraBuruaStrict&query=arte

Euskaltzaindia. (s.f.). Diskurtso. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 10 de mayo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=diskurtso&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Euskaltzaindia. (s.f.). Entzumen. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=13964

Euskaltzaindia. (s.f.). Fonetika. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=25107

Euskaltzaindia. (s.f.). Fonologia. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=fonologia&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Euskaltzaindia. (s.f.). Gramatika. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 12 de mayo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=20679

Euskaltzaindia. (s.f.). Ipuin. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 10 de mayo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&entryId=17976&query=fonetika

Euskaltzaindia. (s.f.). Literatura. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=literatura&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Euskaltzaindia. (s.f.). Morfologia. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023,

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=morfologia&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Euskaltzaindia. (s.f.). Semantika. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023, de https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiaibilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&non=osagaiakHasi&query=semantika&subcMota=&pos=&usgDomain=&usgGeo=&usgBeste=&usgReg=

Euskaltzaindia. (s.f.). Sintaxi. En *Euskaltzaindia*. Recuperado el 15 de marzo del 2023, de https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiaibilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&entryId=41526&query=sintaxi

